

## DATORRENA

Orain dela hogeit urte bezala,  
«ezkerra iraulka» ISIDRO ESNAOLA > 3

## INDEPENDENTZIAZ HAUSNARTZEN (II):

Unai Apaolaza: Abertzaletasunetik  
independentismora > 22

2016ko otsailaren 20a | X. urtea • 456. zbk.  
0,50 euro

# GAUR8

mila leiho zabalik  
[www.gaur8.info](http://www.gaur8.info)



## KIVA PROGRAMA: ESKOLA JAZARPENA, ERROTIK > 12

GAUR8



**Antia Fernandez, ofizialki kirol olinpiko batean lehiatzea lortu duen lehen transexuala** 04

**Eguzki energia, itxurakeriaren eta beharraren artean** 07

**KiVa programa, nola aurre egin osoki eta modu sistematikoan eskola jazarpenari** 12



## SINADURAK:

- 03 **Isidro Esnaola:** Orain dela hogeit urte bezala, «ezkerra irauli»  
10 **Oier Gorosabel:** Adina: nortasun agirikoa edo biologikoa?  
11 **Mikel Zubimendi:** Kritika eta autokritikaz, ariketa iraultzailea «Abian»  
16 **Unai Iturriaga**  
20 **Gaizka Amondarain:** Amets doitua  
21 **Iker Barandiaran:** Lehen hitza... oinarritzkoa  
27 **Joxean Agirre:** Aprobetxatu eta gozatu  
27 **Saioa Iraola:** Ihesaldia eta bortxa  
30 **Ander Izagirre:** Historiako maparik zaharrena




**Haziak herri denda, istorioak eta bizipenak apaletan** 18

**Unai Apaolaza, abertzaletasunetik independentismora** 22

**XXI. mendeko nekazaritza... ekologikoa?** 26

**In Fraganti: Phil Miller** 28



{ datorrena } **Isidro Esnaola**

# Orain dela hogeiei urte bezala, «ezkerra iraulka»

**E**zkerreko indarren baitan mugimendu interesgarriak ematen ari dira. Pasa den irailean laboristen alderdiko lidergoa aurreikuspen ororen aurka Jeremy Corbynek eskuratu zuen. Orain, Ameriketako Estatu Batuetako demokraten hautagaia aukeratzen ari diren honetan, Bernie Sanders eta Hilary Clinton elkarren arteko lehia parekatuan ikusten ari gara. Corbyn eta Sandersek hainbat ezaugarri partekatzen dituzte. Biak dira adinez helduak. Batak zein besteak ezkerreko posizioak mantendu dituzte urte luzez euren alderdien barnean, egia esateko, predikamendu handirik gabe. Posizio erradikal horiekin alderdion korrante nagusietatik kanpo ibili dira eta eragin mugatua izan dute nork bere alderdian. Biek klase diskurtsoa berreskuratu dute eta nonbait zaharkituta zeuden hainbat kontzeptu berriz ere ozen entzuten dira: langile klasea, langileen eta kapitalaren arteko borroka, klase gatazka, eta abar. XXI. mendean sartu gara, baina XX. edo XIX. mendeko diskurtsoak modan jarri dira ostera. Zerbait sakona aldatzen ari den seinale.

Teoria neoliberalak oinarri hartuta, Ongizate Estatuaren aurkako eraso hasi zuen kapitalak. 80ko hamarkadan oinarriak jarri zituen, baina benetako erasoaldia Berlingo harresia erori ondoren, 90eko hamarkadan, garatu zuen. Garai hartan eraso horien aurrean mehatxuaren tamaina islatzen zuten diskurtsoak egin zituen ezkerrek. Gizarteak, ordea, ez zuen arriskua ikusi eta ez zituen larritasun diskurtso horiek ez onartu ez partekatu.

Aldaketen norabidea ikusita, indar aurrerakoien artean bestelako galderak ere azaleratu ziren orduan. Esate baterako, Ongizate Estatua nola desmuntatzen ari ziren ikusita, ezkerren aldarrikapena ezin zela izan lehen bezala gelditzea planteatu zen. Jarrera politiko horrek, baina, ez zuen etorkizun handirik izango. Izan ere, atzera begira egoteak nostalgia besterik eragiten ez badu ere, etorkizunari begirako bestelako proposamenak formulatzen ere ez zen asmatu. Orduan antzeman egiten zen eraso, baina, azken urteotan bere ahalmen guztiarekin garatu dute boteretsuek. Ongizate Estatua modu planifikatuan ari dira desegiten, murrizketak pausoz pauso ezarritik: pentsioak kalkulatzeko moduan, erretiroa

hartzeko adinean, hitzarmen kolektiboen irismenean, langileen eskubideetan, zerbitzu publikoen pribatizazioan, gizarte zerbitzuetan... Boteretsuek eurek ere ez dute ezkututzen gerra batean daudela eta eurak irabazten ari direla. Testuinguru horretan, gizarteak orain bai ulertu du bere ongizatearen aurkako eraso zuzena pairatzen ari dela; ondorioz, klase borrokan oinarritutako garai bateko diskurtsoak gehiago eta hobetu ulertzen ditu. Diskurtso horiek oraingo honetan jendearekin konektatu dute.

Klaseen arteko konfrontazioa areagotzeak adostasunean oinarritutako diskurtso hutsalak baliogabetu egin ditu eta sozialdemokraziaren espazio politikoa hustu egin du. Ongizate Estatua klaseen arteko nolabaiteko tratua izan zen: aberastasunaren banaketan eta Estatuaren gestioan parte hartzearen truke, langileen ordezkariak –sozialdemokraziak– bake soziala bermatzen zuen. Ere horretan, sozialdemokrazia eroso sentitu da eta ondo

Klase gatazka berpiztu denean, mezu bateratzaileak eta gutxiakako lorpenen bidea indargabetuta gelditu dira. Hutsune hori betetzeko betiko diskurtsoak eta lider zaharrak itzuli dira

mugitu da. Klase gatazka berpiztu denean, berriz, mezu bateratzaileak eta gutxiakako lorpenen bidea indargabetuta gelditu dira. Hutsune hori betetzeko betiko diskurtsoak eta lider zaharrak itzuli dira.

Giro horretan, Yannis Varoufakis Greziako Finantza ministro ohiak DiEM25 mugimendua aurkeztu zuen pasa den astean Berlinen. Aste honetan Madrilen “B plana” topaketak egingo dira. Eztabaida, hausnarketa eta ekimenak aurrera eramateko espazio berriak irekitzen ari dira ezkerreko indarren artean. Proposamenen esparruan, momentuz, berrikuntza handirik ez. DiEM25 manifestuaren arabera, adibidez, Europa demokratikoa eraikitzeke subjektua herriak dira. Lelo horrekin hurbildu zen Herri Batasuna Europara Maastrichteko garaian. Orduan, “Ezkerra iraulka” jardunaldiak antolatu ziren ezkerre berritzeko. Gauza berdinei jira eta buelta jarraitzen dugu. •


# «Tristeza da 2016an ni izatea modu ofizialean kirol olinpiko batean lehiatu den lehen transexuala»

**A**ntia Fernandez galiziarra Estatu espainiarrean kirol olinpiko batean lehiatu den lehen transexuala da joan den urtarrilaren 24az geroztik. Coruñaako Calasancias boleibol taldea bidelagun izan du bere ametsa errealitate bihurtzeko, eta esker oneko hitzak besterik ez ditu bertako arduradunentzat. Integrazioa eta errespetua ardatz izanda, hasieratik onartu zuten eskola erlijioso batekin loturiko talde bat izanagatik, eta jarrera eredugarria erakutsi dute.

Amets hori bete aurretik, ordea, aurreiritziz eta oztopoz beteriko bide malkartsua gainditu behar izan du. Etengabe igeri egin behar izan du olatuen aurka. Eskolan klasekideen irainak jasan behar izan zituen, eta, ondorioz, baztertua sentitu zen. Hori gutxi ez, eta etxeako ere ez zituen lagun izan. Haiek ere ez baitzuten ulertu emakume jaio zela. Gerora ere itsasoak oldartuta jarraitu du bere kontra eta egoera gordinak pairatu ditu. Kirolean ez ezik, lana bilatzeko edo etxe bat alokatzeko orduan ere ageriko trabak topatu ditu transexuala izateagatik.

Egun mordoa negarrez igarogatik Antiak ez du amore eman, borrokan jarraitu du, eta, azkenean, lortu du itsasertzera iristea, eta neurri batean itsasoa baretzea. Halere, itsasoa behin betiko baretzeko gizarteak aldaketa sakon bat behar duela badaki. Horretarako pausoak ematen jarraitzen den bitartean, berak eginiko bidea antzeko egoeran dauden pertsonentzat baliagarria izatea espero du behinik behin.

**Kirol olinpiar batean ofizialki debuta egin duen Estatuko lehen pertsona transexuala izan**



## ANTIA FERNANDEZ BOLEIBOL JOKALARIA

Estatu espainiolean kirol olinpiko batean debuta egin duen lehen pertsona transexuala bilakatu zen joan den urtarrilaren 24an Antia Fernandez, nahiz eta artean operaturik egon ez. Coruñaako Calasancias taldearekin Galiziako Boleibol Ligako Bigarren Mailan jokatu zuen estreinakoz, eta, partida galdu egin zuen arren, egun hori historiako orrietan idatzita geratuko da bere esanahiagatik.

Mikel Ibargaien

**zara. Beste horma bat apurtu duzu.**

Hala da. Nik ez nuen helburu horrekin eman pausoa, nik nire ametsa bete nahi nuen, ez besterik, baina historiako liburuetan modu horretan idatzita geratuko da.

**Nola sentitu zinen debuteko partidaren?**

Albisteak zeresan ikaragarria eragin zuen hedabideetan, partidaren aurreko egunetan elkarriketa mordoa egin nituen; ni ez nago ohituta, eta horrek kontzentrazioa mantentzea zailtzen du. Coruñaako udal ordezkari eta agintariak ere partida ikustera joan ziren eta horren guztiaren eraginez egoerak gainezka egin zidan; oso urduri nengoen, baina, era berean, pozik ere bai. Oso une berezia izan zen niretzat.

**Debuteko partida ezin izan zenuen irabazi, baina egun hartan emaitza gutxienekoa zen.**

Emaitza ez zen albiste izan inondik ere, bigarren mailan geratu zen. Garrantzitsuena bai klubak bai taldekideek ere arazorik gabe onartu nautela da, hori da benetako garaipena.

**Espero zenuen zure kasuak horrelako oihartzuna izatea?**

Ezustean harrapatu nau. Nire kasuari buruz hitz egin duten nazioarteko web orri desberdinen estekak iritsi zaizkit, hala nola, Perukoak, Txilekoak, Mexikokoak edota AEBetako Los Angeles hirikoak. Lagunak ditut herrialde horietan eta albisteak bertan ere oihartzuna izan duela komentatu didate. Estatu espainiarrean ere hedabide ugari-tan agertu naiz.

**Zer esanahi du emandako pausoa honek zuretzat?**

Zelaira ateratzean neskatala sentitu nintzen berriro, bere ametsa betetzerik izan ez zuen neskatala hori, hain zuzen. Beraz, atzerapen nabarmenarekin baina gauzatu dut nire ametsa. Halaber, balio izan du ateak irekitzeko gizartearen integratzeko arazo mordoa izaten dituen kolektibo bati. Lan merkatuan eta

kirolean emakume izate hutsak oztopo ugari dakartza ikusgarritasun eta berdintasun maila berbera lortzeko, eta zer esanik ez transexuala bazara.

**Ametsa orain gauzatu duzu, baina aurretik beste saiakeraren bat egin zenuen arren, ez zen posible izan.**

Apirilean nortasun agiria lortu nuenean hasi nintzen saiatzen. Lehenik, Coruñaako udal eskolatan, baina, kurtsoa amaitzen ari zenez, hurrengo urtera arte itxaroteko eskatu zidaten. Hala, udara amaitu arte nire kabuz entrenatzen aritu nintzen, eta, ostean, berriro joan nintzen ize-na ematera. Baina zalantzak sortu zizkidaten erantzunak jaso nituen. Ez nuen argi ikusi ezetza jasotzearen benetako arrazoa arautegia bera edo haien ikuspegia zen.

**Coruña bertako Calasancias taldeak, ordea, ez zizun oztoporik jarri.**

Abenduan jarri nintzen harremanetan beraiekin. Taldeko kirol koordinatzailea den Luis Miguel Fernandezekin hitz egin nuen, eta, nire kasua azaldutan «noski baietz» esan zidan, «kontrakoak ez luke zentzurik». Kiro-la egin nahi banuen eta multzotan baneratu nahi banuen haiek niri laguntzeko prest zeudela esan zidan. Dena den, badaezpada Espainiako Boleibol Federazioa kontsulta igorri genuen, eta, nire nortasun agiria nahikoa zela esan zigutenez, aurrera egin genuen.

**Kanpotik begiratuta benetan deigarria da beste talde batzuek bizkarra ematea, eta, aldiz, Calasanciasek horren jarrera ona erakustea. Izan ere, Calasancias eskola erlijioso batekin loturiko talde bat baita.**

Nik ez nioke garrantzi handirik emango. Beraien oinarri nagusiak errespetua eta integrazioa dira, eta nire kasuan ere printzipio horiei jarraiki jokatu zuten aurreiritzi guztiak albo batera utzita.

**Taldekideek ere harrera ona egin zizuten?**

Primeran portatu ziren nirekin. Lehen unetik bi musu emanda aurkeztu ziren eta ahal zuten guztian lagundu zidaten. Gogoratzen naiz lehen entrenamendura belaunetako babesik gabe joan nintzela eta taldekide batek bereak oparitu zizkidala minik har ez nezan. Horrelako keinuak asko baloratzen ditut nik.

**Orain buru-belarri zabilta bo-leibolean, baina aurretik beste kirol batzuk ere egindakoa zara, ezta?**

Ziklismoa, esaterako, duela urte batzuk utzi nuen gonarekin bizikletan ez nintzelako eroso sentitzen. Orain, sexu erreasignazio prozesua amaitzean kulota jantzi eta bizikletara igoko naiz berriro. Beste horrenbeste gertatu izan zait igeriketarekin, bainujantziarekin ez nintzen eroso sentitzen-eta. Asko gustatzen zait igeri egitea eta posible dudanean igerilekuetara itzuliko naiz.

**Noiz jabetu zinen zu emakumea zarela?**

Hasiera-hasieratik. Ni emakume jaio nintzen eta hala sentitu izan naiz beti. 5 urte nituenean, jada hitz egiten moldatzen nintzela eta izaera handia edukita, etxekoei esan nien nire izena aldatu nahi nuela, eta aurrerrantzean Antia deitzea nahi nuela. Izan ere, aurretik nuen izena oso maskulinoa zen, eta psikologikoki niretzat gogorra zen jendea niregana izen hori esanez zuzentzea.

**Nola erantzun zuten etxekoek?**

Ez zuten ulertu, ezta onartu ere. Hasieratik esan zidaten ezin nuela Antia izena izan, hori nesken izen bat zelako, eta ni, aldiz, mutila nintzela. Nire familiarentzat aukera hori ez zen posible, nire planteamendua zentzugabea zen haientzat.

**Ez dirudi jarrera hori oso lagungarria izango denik.**

Nik sekula ez dut izan etxeko babes. Are gehiago, iritsi zen momentu bat ikusi nuena ezin nuela horrela jarraitu eta erabaki nuena bazela garaia gizartearen aurrean ni benetan nintzen

*«Zelaira ateratzean neskatila sentitu nintzen berriro, bere ametsa betetzerik izan ez zuen neskatila hori, hain zuzen. Beraz, atzerapen nabarmenarekin baina gauzatu dut nire ametsa»*

*«Ziklismoa duela urte batzuk utzi nuen gonarekin bizikletan ez nintzelako eroso sentitzen. Orain, sexu erreasignazio prozesua amaitzean, kulota jantzi eta bizikletara igoko naiz berriro»*

bezala azaltzeko, emakume bezala, alegia. Pauso hori ematea erabaki nuenean etxetik alde egiteko esan zidaten.

**Gogorra izango zen.**

Funtsezkoa da emakumea zarela esaten duzunean zure familiak hori entzutea, onartzea eta babesa ematea. Tamalez, ez zen nire kasua izan.

**Beraz, esan daiteke oraindik gizarteko sektore batzuek inposatu egin nahi dutela pertsona bakoitzak zer eta nor izan behar duen?**

Ni horretaz jabetu nintzen ikusi nuenean zenbait kirol arautegik oso muturreko informe iraingarriak aurkezteko eskatzen zutela. Beste aukera medikuez osaturiko epaimahai baten aurrera joatea zen, non kanpoko norbaitek biologikoki eta bisualki aztertzen zintuen bere iritziazen arabera nor zinen epaitzeko. Beraz, argi dago oraindik bide luzea dagoela egiteke.

**Gurasoek ez zintuzten onartu eta ez dakit klasekideek zernolako jarrera izango zuten zurekin eskolan.**

Txantxak, bromak eta irainak etengabe jasaten nituen. Ondorioz, ni ez nintzen klasean integratuta sentitzen. Nerabazaroko lehen urteetan, esaterako, *matxito* gisa mutilen artean hankarteko erregeari buruz hitz egiten hasten zirenean, etengabe konparazioak eginez, soberan nengoela konturatzen nintzen. Behin txantxetan esan nien: «Begira, zentimetro faltan baldin bazaudete, nik emango dizkizuet nire denak, sustraitik puntaraino». Broma zen, baina nik barruan mina sentitzen nuen, ikusten nuelako ez zutela ulertzen adierazi nahi nuena, ez nintzela beste mutil bat, eta, beraz, ez nuela kabida haien artean. Aldageletan ere deseroso sentitzen nintzen, lekuz kanpo nengoen eta hori zama handiegia zen niretzat. Beste horrenbeste gertatzen zitzaidan nire klasekideak leiho atzetik neskak zelatatzeraz jaten zirenean ere. Haiekin joaten nintzen beti, baina nire asmoa zen zarataren bat

egitea neskak ohartarazteko. Inkontzienteki feminista izaten hasi nintzela uste dut. Beste neskak babesten saiatzen nintzen, haien pribatutasuna defendatu nahi nuen.

**Nerabezaroa etapa zaila izaten da berez. Zure kasuan are eta konplikatuagoa, ezta?**

Gogoratzen naiz besazpietan eta hanketan ilea irteten hasi bezain pronto depilatzen hasi nintzela, eta hori izan zen etxean gaizki ikusi ez zuten gauza bakaretako bat. Hortaz, nire gainerako ahizpak bezala normaltasunez depilatzen nintzen.

Sexuarekin ere gaizki pasa nuen. Etxean oso jarrera itxia zuten, baita nire ahizpekin ere. Sekula ez genuen gaia jorratzen eta hilekoaren gaineko azalpenik ere ez genuen jaso.

**Noiz erabaki zenuen gizartearen begietara zaren bezala agertzea, ezkutatu gabe?**

14-16 urterekin emakume jarrera erakusten nuen, baina gizon maritxu baten moduan ikusten ninduten. Hori izan nintzen ni urte askoan jendearentzat, gizon maritxu bat. Hori aldatzeko nik basektomia egin nahi nuen. 18 urte bete bezain pronto joan nintzen medikuarengana eskaera egitera, baina etengabe ukatu zidaten aukera hori, 2013an, azkenik, itxaron zerrendan sartu ninduten arte.

**Pauso horiek ematean urte askotan pilaturiko karga ere arinduko zitzaizun.**

Transexualengan bada ohiko sentimendu bat, disforia izenekoa, norberarekiko, gorputzarekiko edota organismoaren funtzioekiko gorrotoa eragiten duena, garunak esaten digunaren kontrakoa ikusten dugulako. Soinekoa jantzi, kalera atera eta niri buruari buruz emakume gisa hitz egiten hasi nintzenean erabateko poztasuna sentitu nuen, irribarrez nengoen une oro. Jendeak barre egiten zidan bizar pixka bat nuela, azazkalak margotzen nituela... ikusita, baina niri berdin zitzaidan. Nire zoriontasuna edozeren gainetik zegoen. Nire buruari esaten

nion inork ez ninduela gehiago zangotrabatuko.

**Nolako komentarioak egiten zizkizuten?**

Denetariko astakeriak entzuten nituen: liburu bat beteko nuke entzun ditudan komentario desatsegin guztiekin! Autobusean behin «zer egiten du trabesti batek orduotan kalean» esan zidan gidariak. Beste gidari batek nortasun agiria eskatu zidan ni nintzela baieztatzeko, eta, behin egiaztapenak eginda, «zergatik mozorrotzen zara horrela?» esan zidan. Egoera askoz gogorragoa da nortasun agiria aldatu aurretik. Izan ere, zu gonarekin eta makilatuta irteten zara kalea, eta leihatila publiko batean dagoenak agiria eskatu ostean lankideari «gizon honi kasu egin behar diot» esaten diola entzutea oso gogorra da. Zu esfortzu handia egiten ari zara zure benetako nortasuna erakusteko, eta ikusten duzu ez duela ezertarako balio.

**Nola definituko zenuke gaur egun horrelako jokaerak oraindik ere presente egotea?**

Tristea da. Eta tristea da ere 2016an ni izatea modu ofizialean kirol olinpiko batean lehiatzen den lehen transexuala, baina hori da daukaguna. Tristea da ere homosexualek pairatu behar dutena sexu bereko pertsonekin harremanak izateagatik. Nik uste dut badela garaia bakoitzak nahi duen bezala eta libreki bizitzeko aukera izateko.

**Alboratua sentitu zara?**

Autobusean gertatu izan zait nire ondoan lekua egotea eta gurasoren batek bere umeari nire alboan esertzeko baimenik ez ematea, barrenean haurrari edozer gauza egiteko gai naizela pentsatzen ariko balitz bezala. Orduan pentsatzen duzu agian zuk altza beharko duzula umea lasai eser dadin. Jada nortasun agiria aldatuta ere, erosketak egin eta berau eskatu ostean ere gizon moduan tratatu izan nauten, nahiz eta bertan argi eta garbi jarri emakumea naizela. Hala ere, noski, dena ez da txarra izan. Hainbat proiektutan onartu



«Autobusean gertatu izan zait nire ondoan lekua egotea eta gurasoren batek bere umeari esertzeko baimenik ez ematea, barrenean haurrari edozer gauza egiteko gai naizela pentsatzen ariko balitz bezala»

«Olinpiar Jokoetan parte hartzen duten kirolari transexualek arazoak izaten jarraituko dutela uste dut, eliteko kirola oso lehiakorra da-eta. Sexu aldaketaren operazioa egin gabe parte hartzea posible izango denez, zeresan handia izango da»



izan naute: gobernuz kanpoko erakunde batean laguntzaile moduan, elkarte bateko ekin-tzaile gisa, mugimendu feminis-ta bateko kide gisa...

**Bizitzako beste alor batzuetan zailtasunak izan dituzu?**  
Lana bilatzeko orduan, adibidez. Ezagutzen dut jendea haien ger-tukoekin bilakaera prozesua ha-si duena, baina, gero, aldaketa hori gizarte osora zabaltzeko beldurra dute, susmatzen baitu-te pauso hori emanez gero lana gal dezaketela.

Niri kasuan, ni langabezian nengoen aldaketa prozesuari ekin nionean, baina bilakaera horretan zehar izan ditut hain-bat lan elkarrizketa eta egoera tamalgarriak bizitzea egokitu zait. Batek esan zidan ez zitzaio-la batere serioa iruditzen lan el-karrizketa batera mozorrotuta joatea. Beste batek, ostera, oraindik nortasun agiri berria ez nuenez, argi utzi zidan hauta-tua izanez gero ere, inolaz ere

ezingo nukeela joan lanera ema-kumez jantzita. Nik hori ent-zundakoan argi nuen hori ez zela niretzako leku aproposa, ni-re nortasunak eta duintasunak gaizki ordaindutako lan batek baino gehiago balio dute eta.

Behin nortasun agiri berria eskuratuta ere, gertatu izan zait elkarrizketaren batera joan eta elkarrizketatzailea haserre ager-tu izana esanez ea nola zen posi-ble gonaz jantzitako marikoi bat bidali izana. Adibide horiek guz-tiek argi eta garbi islatzen dute zer-nolako zailtasunak ditugun transexualek lan munduan bar-neratzeko.

**Horrek psikologikoki ere era-gina izango du, ezta?**  
Bai, baina denborarekin barre egiten eta positiboa izaten ikas-ten duzu; ispiluan begiratzen zarenean zure buruari benetan ederra zarela esaten diozu. Ez dago besterik. Gizarteak nor-maltasunez ikusi eta onartu be-har gaitu, gizarteak aldatu behar

du. Baina horretarako borrokan jarraitu beharko dugu.

**Ikastetxeetan pertsona transe-xualei bidea errazteko neu-riak hartzen hasi dira.**  
Valentzian arau bat onartu dute ikasle guztiek haien nortasuna-rekin bat datorren izena izan de-zaten, eta aldagelak eta komu-nak ere irizpide horren arabera erabil ditzaten. Bide hori txiki-tatik egitea funtsezkoa da bai pertsona transexualek bai gai-nerakoek ere egoera normalta-sunez bizi dezaten.

**Badirudi Nazioarteko Olinpiar Batzordeak egindako aldaketa medio, atleta transexualek au-rrenkoz parte hartu ahal izan-go duzuela Olinpiar Jokoetan sexu aldaketa egiaztatuko lu-keen ebakuntza egin beharrik izan gabe.**  
Beste pauso bat da, baina nik us-te dut Olinpiar Jokoetan parte hartzen duten kirolari transe-xualek arazoak izaten jarraituko

dutela. Izan ere, eliteko kirola-ren mundua oso lehiakorra da, eta, sexu aldaketaren operazioa egin gabe parte hartzea posible izango denez, egoera horretan lehiatzen diren transexualek ze-resan handia emango dute; egoera deserosoak jasan behar-ko dituztela iruditzen zait. Gai-nerakoek bidea samurragoa izango dute.

**Zer mezu bidaliko zenieke zure antzeko egoeran daudenei?**  
Baikorra izan behar dela, borro-katu egin behar dela eta aurrera egin. Nik egun askotan egin dut negar, momentu askotan babe-sa falta izan zaidalako eta inork ulertzen ez ninduela sentitzen nuelako. Momentu horietan amore emateko tentazioa izan nuen, baina barrutik indarra atera eta jarraitzea erabaki nuen. Hori da egin behar dena. Nork bere nortasunari eutsi be-har dio eta lortu behar da hori askoz modu naturalagoan eta normalagoan ikustea.



# EGUZKI ENERGIA

Proiektu erraldoiak, diktadoreek;  
beharren arabera, indigenek

 **EKONOMIA** / joseangel.oria@gaur8.info

Ikusgarriak dira Marokoko erregeak Atlas mendikateko Ouarzazate probintzian inauguratu berri dituen instalazioak. Eguzkiaren energia baliatuko dute, multinazionalen eta erregimenaren irudia hobetzeko. Oso bestelakoa da Atacama basamortuko indigenek abiarazitako proiektua, herriarrei egiten baitie mesede.

**O**tsailaren 4an hasi zen lanean Ouarzazateko zentral helio-termikoa, munduko handiena.

Bertan izan ziren Mohamed VI.a erregea eta Marokoko Gobernu-ko ministro guztiak, Estatu espainoleko eta frantseseko ordezkariekin batera. 160 megawatt eskaintzeko gaitasuna du orain-

goz, eta Noor II eta Noor III fase-  
etako lanak amaitzean (orain  
hasi dira horiek eraikitzeko la-  
nak), beste 350 megawatt eman-  
go ditu Ouarzazateko zentralak.  
Gainera, beste 70 megawatt  
emango ditu leku berean egingo  
den zentral fotovoltaikoak.

Eguzki energia Eguzkitik Lu-  
rrera erradiazio elektromagneti-  
ko itxuran iristen den energia  
mota da, hiztegiaren arabera.

Ouarzazateko instalazioek  
480 hektareako eremua  
hartzen dute. Munduko  
turbina bakarreko zentral  
heliotermikorik handiena  
da gaur egun.  
Fadel SENNA | AFP

Eguzkia energia iturri agortezina eta berriztagarria da, eta energia termikoa edo elektrizitate sortzeko erabiltzen da batez ere. Baina oso era ezberdinetan erabil daiteke, jakina: Marokoko errege-diktadorearen posizioa gehiago indartzeko edo Atacamako basamortuko indigenen bizimodua hobetzeko, muturreko bi erabilera aipatzeagatik. Bi eredu horiek azaltzen saiatuko gara orrialdeotan.

## ITURRI AGORTEZINA

Eguzki energia fotovoltaikoa eguzki izpietatik abiatuta sortutako energia elektrikoa da. Zenbait modulu fotovoltaiko (elkarrir konektatutako hainbat zelula fotovoltaiko) elektrikoki konektatuz eta muntatuz osatutako multzoari esaten zaio eguzki panel edo panel fotovoltaiko. Eguzki energia termikoa, aldiz, beroa lortzeko Eguzkiaren energiaren baliatzean datza. Uhin elektromagnetikoen materialei be-



**Hasiera batean Ouarzazateko proiektuaren helburua energia Europara esportatzea zen, baina porrot egin zuen asmoak, Madrilek urpeko kable bat finantzatzeari uko egin ostean**

roa transferitzen diete. Energia mota hau agortezina eta guztiz berriztagarria da, hau da, naturan ez du eragin kaltegarriarik.

Hotza zegoen Ouarzazaten erregeak botoia sakatu eta eguzki energiaren lehen kilowatta Marokoko sare elektriko nazionalan sartu zenean.

Txalo eginez erantzun zuten ekitaldian ziren gonbidatuek. Marokon ia beti daude eguzkitan: urtean 3.000 ordu, batez besteko datuen arabera, baina Atlas mendikateko puntu hartan gehiago, eta horrexegatik aukeratu zuten zentral heliotermikoa eraikitzeke.

Mustafa Bakuri Marokoko Eguzki Energiaren Agentziako zuzendariak esplikatu zuen instalazioek 480 hektareako eremua hartzen dutela, munduko turbina bakarreko zentralik handiena, beraz. Eraikitzeke lanak Saudi Arabiako Acwa Power konpainiak zuzendutako kontsorzio bati esleitu zizkioten 2012an. Estatu espainoleko enpresa batzuek ere esku hartu dute (775 milioi euroko kontratuak sinatu dituzte).

**BURUJABETZA ARRISKUAN**

Hasiera batean, Hamza Hamouchene idazle aljeriarrak azaldu duenez, Ouarzazateko proiektuaren helburua energia esportatzea zen, baina porrot egin zuen hasierako asmoak, ez baitzuten lortu Madrileko agintarien babes finantzariorik itsasoa urpeko kablea jartzeko.

Beraz, sektoreko zenbait multinazionalen aholkuarekin (E.ON, Munich Re, Siemens eta Deutsche Bank), Marokoko zentrala bertako energia beharrak asetzeko erabiltzea erabaki zuen. Hamouchene doktoreak Londresen egoitza duen ASC Algeria Solidarity Campaign sortu zuen bere garaian eta orain “L’Autre Afrique” aldizkarian energia berriztagarrien inguruko analisia eman du argitara. Ouarzazateko proiektuak salatzeko moduko gauza asko dituela esplikatzen du.

Jawad Moustakbal Marokoko ATTAC eta CADTM elkarteetako ekintzaileak herrialdearen burujabetza bera arriskuan ikus-

**Jawad Moustakbal ATTAC elkarteko kideak Marokoren burujabetza bera arriskuan ikusten du, multinazionalak gero eta pisu gehiago baitute herrialdearen argindar ekoizpenean**



Kultura ezberdinetako ikasleek helburu bera dute Oinutsen Unibertsitatean. GAUR8



Marokoko erregea, Segolene Royal frantsesa eta Jose Manuel Garcia-Margallo espainola ondoan dituela, Ouarzazaten. AFP

ten du Ouarzazateko proiektuarekin, konpainia multinazionalak gero eta pisu gehiago izango baitute herrialdearen argindar ekoizpenean. Herritar guztien bizimoduan sekulako eragina duten erabakiak «teknokrata gutxi batzuek» hartzea ez da onartzeko modukoa, bere iritziz.

**«GOITIK BEHERAKO IKUSPEGIA»**

Hamza Hamouchene aljeriarrak Magrebeko herrialdeen egoera sozioekonomikoa ekartzen du gogora, Ouarzazateko zentralaren egokitasuna neurtzeko.

Gogorazten du idazleak Arabiar Udaberriak piztu zituzten herriek ogia, askatasuna, justizia soziala eta burujabetza nazionala exijitzen zituztela: «Multinazional handiek esku hartzen duten proiektuek ikuspegi teknokratikoa hartzeko joera izaten dute, goitik beherako ikuspegia, eta era horretan desjabetze kopuruak, kutsadurak eta lur pilaketak berak ere gora egiten dute. Bertako komunitateen inplikaziorik gabe ez dago bermatzerik proiektu horiek pobrezari aurre egiten, langabezia murrizten edo ingurumena zaintzen laguntzen dutenik».



Marokok hartuko du azaroan COP22 Nazio Batuen Klima Aldaketari buruzko Konferentzia, Marrakex hirian. Magrebeko herrialdeak sekulako energia menpekotasuna du gaur egun. Kontsumitzen duen energiaren %96 inportatu egiten du. Petrolio produktuetan urtean 8.000 milioi dolar gastatzen ditu.

Herrialdearen energia eskaria hirukoiztu egin da 1999az geroztik, Ali Fasi Fibri Marokoko ONEE erakundeko zuzendariak emandako datuen arabera. Gobernuak prest duen egitasmoa betez gero, 2030erako herrialdeak kontsumitzen duen energiaren %52 iturri berriztagarrietatik iritsiko da.

Ouarzazateko zentralari esker, multinazionalak beren aurpegiarik onena erakusten dute, eta Marokoko erregimenarentzat ere propagandarik onena izango da, energia garbien alorrean aitzindarien artean azaltzeko



## ESKOLARA BIDEAN MOTXILA ENERGIAZ BETE

Eguzki energiak ez du derrigorrez instalazio handirik behar herritarren beharrak ase ahal izateko. Txileko Atacama basamortuan bezala, munduko beste leku askotan ere energia iturri horrek ematen dituen aukerak ezagutzen hasiak dira eta gaur egun ez da harritzekoa Kenyako iparraldeko masai etniako artzainak telefono mugikorrarekin hizketan ikustea. Pew Ikerketa Zentroaren arabera, kenyarren %82k du bere sakelako telefonoa. Arazoa aparatua kargatzea da, baina, eguzki panelak gero eta etxe gehiagotan dituztenez, horietako batera joan eta konponduta dago.

Salima Visram ikasle zuria Mombasakoa da. Emakumea Kanadara joan zen ikastera, bere herrikoen arazoetako bat buruan zuela: ikasleek ezin zuten etxean gauez ikasi, argindarrik ez zutelako. Eskolara joateko erabiltzen duten motxilan panel txikiak jartzea otu zitzaion, eskolara doazen bitartean aparatua karga dadin (batez beste, lau ordu egiten dituzte oinez egunean, eguzkitan). Motxila lau orduz eguzkitan edukita, zazpi orduz ematen du argia gauez. Sarean diru bilketa egin zuen lehenengo 2.000 motxilak ekoizteko. «Ekimenak arrakasta izaten badu, datozen bi urteetan konderriko ehunka eskoletara iritsiko gara», adierazi du ikasleak.

kok atzera egin zuten eta 30ek baino ez zioten eutsi hasierako asmoari: «Herri honetan herritar zaharrek osatutako kontseilu bat dugu, eta horrek hartzen ditu erabaki guztiak. Ez naiz sekula talde horretako kide izango».

Luisak 43 urte ditu eta Lilianak, 45. Beren herria 3.300 metroko altueran dago eta ofizialki 400 biztanle ditu, baina 150ek baino ez dute bertan egiten aste osoa, besteak asteburuetan itzultzen baitira. Oso baldintza txarrak biztanle kopuruari eusteko: «Urtean hamar familia joaten dira herritik, normalean seme-alaben ikasketengatik eta gazteen lanarengatik».

2013ra arte, herrixkak elektrizitate sorgailu bakarra zuen. Horri esker argindarra izaten zuten egunean bi ordu eta erdiz. Eta hura hondatzean, guztiak ilunpetan geratzen ziren. Une honetan sorgailuak lanean jarraitzen du, baina 127 etxetan egunean hiru ordutan dute argia, Liliانا eta Luisa Teranek jarritako eguzki instalazioari esker.

2012ko martxoan abiatu ziren Indiako ipar-mendebaldeko Rajasthan estatuko Tilonia herrira, bertan baitaude Barefoot Collegeko (Oinutsen Unibertsitatea) instalazioak. Atacamako basamortuko beste herri batzuetan bizi diren Elena Achu, Elvira Urrelo eta Nicolasa Yufla indigenak ere beraiekin joan ziren.

### HOZKAILUA KONEKTATU

Sei hilabete egin zituzten bertan. Hasieran kostatu egin zitzaizkien Tiloniako berora egokitzzea, asko argaldu ziren (bertako janariak arraroak egiten zitzaizkien) eta Caspanara itzultzean jango zuten haragiarekin egiten zuten amets.

Azkenean itzuli egin ziren Atacamara. Herriko etxola batean eguzki instalazioa jartzeagatik 45 dolar kobratzen zituzten. Komunitateak gaur egun 75 dolar ordaintzen dizkio bakoitzari bi hilabetetan behin herrian jarritako 127 panelen mantentze lanak egiteagatik. Orain baterien kapazitatea handitu nahi dute, herritarrek hozkailua konektatzeko aukera izan dezaten. Ametsek ez dute mugarik.

aukera ematen baitio. Beraz, zentralak dakarren “garapenak” eta arrakasta ekonomikoak ez dute Marokora demokrazia hurbilduko, demokraziaren aurkakoenak indartu egiten ditu-eta. «Era egonkorrean energia ekoizteko edozein proiektuk bertako komunitatean errotuta egon behar du; bertakoen beharrak asetzea bideratuta egon; eta ingurumen eta energia justizia izan behar ditu helburu», Hamza Hamouchene idazlearen ustez.

### EGUZKI INGENIARIAK

Oso bestelako eredia azaldu digu Marianela Jarroudek IPS agentziak banatutako artikulu batean. Liliana eta Luisa Teran emakume indigenen kasua kontatzen du: Atacamako basamortutik Indiara joan ziren orain ia lau urte, eguzki energia nola erabili ikasi eta Caspana herrixkan han ikasitakoa aplikatzeko. «Herritarrei kostatu egin zi-

tzaien guk Indian ikasitakoa onartzea. Hasiera batean ez zuten begi onez ikusten, gu emakume izateagatik, baina pixkanaka berotzen joan ziren eta gaur egun errespetatzen gaituzte», dio Liliana Teranek.

Luisak esplikatu duenez, Asiarabiatu aurretik 200 herritar zeuden eguzki energian interesatuta, baina, instalazioa eta mantentze lanak emakumeek egin behar zituztela jakitean, as-

Indiako ipar-mendebaldean dagoen Rajasthan estatuko Tilonia herrian daude Barefoot Collegeko (Oinutsen Unibertsitatea) instalazioak. Asiako, Afrikako eta Latinoamerikako 49 herrialdetako 700 emakume gaitu dituzte bertan. Irudian, Jordaniako emakumeak eguzki-energiaren sekretuak ikasten.  
GAUR8

**Liliana eta Luisa Teran indigenak Atacamako basamortutik Indiara joan ziren orain ia lau urte, eguzki energia nola erabili ikasi eta Caspana herrixkan han ikasitakoa aplikatzeko**

**Orain baterien kapazitatea handitu nahi dute Caspanako eguzki ingeniariak, herritarrek hozkailua konektatzeko aukera izan dezaten. Ametsek ez dute mugarik**



**Oier Gorosabel**

Fisioterapeuta eta osteopata - @Txikillana

## Adina: nortasun agirikoa edo biologikoa?

**K**iolarien arteko solasaldietan bada behin eta berriz errepikatzen den esaera. Lesioei buruz berbetan, momenturen batean bata besteari adarra joko dio: «Adinarekin, gauza hauek gero eta gehiago izango dituzu!». Txantxetan esaten dute, jakina, baina esaldi horren azpian jendeak benetan sinisten duen uste okerra dago: adinean aurrera egitea eta osasunean txarrera egitea, dena bat dela. Bada, lagunok, albiste ona dakartzuet: ez du zertan beti horrela izan.

Behin, gure eskualdeko kobazulo batean, espeleologoek zortzi lagunengorputziak aurkitu zituzten. Antzinako hilerri hori aztertzerat etorri zirenean, arkeologoek lehenengo lana aztarnategia noizkoa zen zehaztea izan zen; hezurretako karbonoa aztertuta, duela 4.000 bat urte lurperatutako euskaldunak zirela ikusi zuten. Baina era askotako jendea zegoen han: haurrak, helduak zein zaharrak. Hurrengo lana, beraz, pertsona bakoitzaren adina zehaztea izan zen; gorpuzkion alboan «Nortasun Agiri Neolitikorik» aurkitu ez zutenaz, arkeologoek beste gauza batzuei erreparatu behar izan zieten pertsonon adina zehazteko. Adin biologikoa, noski; pertsona baten osasunari dagokion bakarra.

Horrelako kasuetan, aztarnategietan aurkitzen diren gorpuzki bakarrak hezurak izaten dira (batzuetan, hori ere ez), eta, beraz, arkeologoak horien azterketara mugatzen dira pertsonon adina ebazteko. Halere, ezin izaten dute zehatz-mehatz esan: asko jo-ta, adin tarte batean kokatuko dituzte gorpuzkiok. Beste berba batzuetan: lurrikara baten eraginez kiroldegia eroriko balitz barruko jende guztia harrapatuta, eta hemendik 4.000 urtera arkeologoek kirolarion hezurdurak aztertuko balituzte, ez litzate-

ke arraroa izango 36 urteko forma fisiko txarreko bati 49 urteko adina egozte, edo 70 urteko aitona kirolzale baten gorpuzkietatik 55 urte zituela ondorioztatzea. Izan ere, giza-kiak asmatutako paper edo zenbaketarik izan ezean, ez dago hezurduron adina gehiago zehazterik.

**Bizirik dauden pertsonetan ere, berdintsu: bere urteen kontua eraman ez duen norbait aurkitzen badugu (batzuetan gertatzen da: uharte batean, oihanean, kalean... bizi diren paperik gabeko pertsonak), ezingo dugu bere adin zehatza asmatu.** Urte asko bete dituen pertsona baten gorpuzkia «gazte» mantentzeko beste arrazoi bat ere ba-

dago: odol zirkulazio sistema. Aktibitate fisikoaren erregularitate egiten duen eta elikadura zaintzen duen pertsonak arteriosklerosia eta bestelako zirkulazio arazo gutxiago izango ditu, eta faktore hori berebizikoa izaten da gorpuzkia egoera onean mantentzeko.

**Honekin guztiarekin, itzul gaitezen kirolzaleen arteko solasaldietara: «Adinarekin gero eta lesio gehiago!». Ez dago zertan.** Adinean aurrera egin ahala gure gorpuzkaren mantentze lanak (beroketak, luzaketak...) alde batera uzten baditugu, kirola irregulartasunez egiten badugu (hiru hilabete ezer egin barik, eta, gero, bat-batean, partidu gogorra), orduan bai: lesioak gero eta sarriago, eta gero eta larriagoak, izango ditugu. Baina entrenamendu planifikazio egokia egiten badugu, orokorrean bizimodu osasuntsua eramanez, gauzak bestelakoak izan daitezke. Gustatzen bazai-zue, aurrera: adina bera ez da arazoa. Ez zinatekete izango 90 urterekin oraindik txapelketetan aritzen den lehenengo kirolari kuadrilla... •



Uste orokorraren kontra, adinarekin lesioak ez dira ugaritzen.

GAUR8

{ asteari zeharka begira } **Mikel Zubimendi**

# Kritika eta autokritikaz, ariketa iraultzailea «Abian»

**E**tsaia ezagutzea ez da lan erraza, diziplina eta zorrotzasun zientifiko handia behar dira. Norbere burua aztertzea, egoera eta kondizio propioak ezagutzea, independentzia eta sozialismoaren arnas luzeko helburuei begira, boterea eskuratzeko perspektiba horretan, garena eta izatera irits gaitezkeena barneratzea ere ez da ez batere erraza. Egoera tentuz irakurri, zuhurtziaz epaitu eta ausardiaz ekitea eskatzen du, ideia argitasuna, ezkerak bere-berekoa behar duen pentsamendu kritikoa.

Iraultzaileak egiten, esaten eta agintzen duenaz arduratu behar du beti. Gehiengo sozialetik dibortziazten denean, beharrezko zintzotasunez hori aitortu behar du. Lortzen dituen irabazi eta eraginek aldebakarreko prozesuek berezko duten hauskortasuna dutela barneratu behar du. Elkarrekin egotea batuta izatea eta batera ekitearen sinonimo ez dela ulertu. Ez garela indar bakar bat, ideologikoki osoki homogeneoa, politikoki granitikoa eta obedientzian diziplinatua. Eta politikoki batu, sozialki berreraiki eta ideologikoki berrindartu nahi dugun proiektuak ez duela horretan bilakatzea helburu.

Gaztetan ikasi genuen kritika eta autokritika printzipio iraultzaileak zirela. Taktikaren eta lerro politikoaren berrazterketa, zuzenketa eta bultzada berritza ezinbestekoak zirela beti, eta, hartara, ariketa horrek eskatzen di-

tuen lan eta antolakuntza mailako euskarriak behar-beharrezkoak zirela. Kritika zerbaiti eta norbaiti egiten zaio, eta, autokritika, berriz, egindako ekintzak bilatzen zituen helburu edo ondorio zehatzak lortu ez dituenen dator, eskakizun logistikoei jaramon egin ez zaienean, edo, sentzilloki, ekintza bera egin ez denean. Hortaz, kritikak eta autokritikak bere helburua lortzeko, hots, ekintza politikoa zuzendu eta hobetzea, lan plangintza kolektibo bat, planifikazio objektibo eta estrategiko bat beharrezkoak dira ezinbestean.

Badira, badirenez, kritiko sistematikoak diren pertsonak. Kexa moduan ezkortasuna azpimarratzen dutenak, beste pertsona batzuk negatiboki seinalatu edo jazarri, eraikitzea eta laguntzea bainoago kaltea interesatzen zaienak. Beti egon dira halakoak, prozesu politiko orotan. Edonola ere, igarotzen ez den pasabidea baino oke-

rragorik ez dagoelako, kritika eta autokritika, bitarteko zorrotz eta ezinbestekoz hornituta, zeregin iraultzaile gisa, beti dira beharrezkoak eta ospatzekoak, politikoki osasungarriak. Eta horretatik asko dago Euskal Herriko herri eta auzoetan martxan den Abian eztabaida prozesuan, baita, zoritxarrez, tabernazulo eta "konspiratokitant" ere. Txostena bera, kritika eta autokritikarako oso baliagarria iruditut zait, eta, nabardurak nabardura, sinplea eta garapenerako aukerez beteta dagoela uste dut.

Iragan astean lerrotan bertan gustura gelditu zen Iñaki Altuna, zorrotz eta latigoa eskuan Abian eztabaida prozesuaren inguruan ederki asko idatziz. Ez direla gotortzeko uneak, ezta autokonplazentzia eta autozigorreen erortzekoak ere. Besteak beste, Sortu birsortuz, "errefundazio" politiko bat proposatzen dela gogoraraziz. Beharrezkoa bezain handia da hitz hori, eta, pertsonalki, asko estimatzen dut ekintza politikoaren zentzua hain argi eta hain

Erraza ez zen oreka ariketa egin behar izan da, baina neurrian eta dotore egin da.  
Larritasunak detektatuz eta aitortuz.  
Itolarria baino arnas luzea hobetsiz.  
Desegitea baino birziklapena

gordin adierazten denean. Oso ondo. Kritika eta autokritika iraultzailearen praxia ez da, baina, elementu isolatua. Ekintza politikoaren osotasunaren parte bat baino. Zentzu horretan, latigoa, azotea erabiltzeak baditu arriskuak ere. Horietan behinena xiiten gisa bukatzea, hau da, odola eginez, autozigortuz, jendea injustuki tratatzea. Erraza ez zen oreka ariketa egin behar izan dela uste dut, baina neurrian eta dotore egin dela esan beharra dago. Larritasunak detektatuz eta aitortuz, baina larrimina hedatzeke. Itolarria baino arnas luzea hobetsiz. Desegitea baino birziklapena, dogma baino arrazoimena, politikoki beste tonu bat eta freskura arnasgarri berri bat independentziaren eta sozialismoaren aldeko borrokari eskainiz. Gure jendea eta espazioa konpaktatzeko eta gurea ez den jendearekin elkarrekikotasuna errazteko gako polit askoak daudelakoan nago. Ez da gutxi. Askok da. •

# KIVA PROGRAMA

## Eskola jazarpenari osoki eta modu sistematiakoan aurre egiteko saltoa

**F**inlandiarrek garatutako jazarpenaren kontrako programaren informazio eta testigantza zuzena iritsi da gurerara. Joan den urtarrilaren 29an, Gasteizko Europa Jauregian egin zen lan jardunaldian, pertsonen ongizatea bilatzen duen ekimenaren sortzaile eta erabiltzaileekin bildu ziren ikasletoetako 300 kide-tik gora: zuzendari, arduradun pedagogiko, orientatzaile eta irakasleak, Euskal Herri osokoak. Tartean zen Nafarroako Ikastolen Elkarteko zuzendaria, Josu Reparaz. Hain zuzen ere, berak eman dizkio GAUR8ri xehetasun guztiak.

Johanna Alanen eta Ulrika Willför-Nyman finlandiarrek azaldu zieten euskaldunei 2009tik martxan den programa. Lehen KiVa programaren nazioarteko koordinatzailea da. Turku Unibertsitateko ikertzailea eta programaren egileetako

 **JENDARTEA** / Maider Iantzi Goienetxe

KiVa Finlandiako Turku Unibertsitateak garatutako programa bat da, berriki ikastolei aurkeztu dietena. Hauek garbi ikusi dute ematen duen saltoa: eskola jazarpenari izena jartzen dio eta esplizituki lantzen du modu sistematiako eta progresiboan, txikitatik hasita, ikastetxe osoa inplikatur. Emaitzak zoragarriak dira.

bat. Bigarrena, berriz, ekimen hori duela urte batzuetatik hona indarrean duen eskola bateko zuzendaria. Euskal Herriko Ikastolen Elkartek bazuen KiVaren berri eta egoki ikusi zuen haren sorrera, zergatia, garapena eta baliabideak zuzenean finlandiarrengandik ezagutzea. Hala, lan jardunaldia antolatu zuten programa hurbiletik ezagutu eta gero erabakia hartzeko ea ikas-

toletan nola eraman zitekeen aurrera. Alanenek eta Willför-Nymanek beren esperientzia kontatu zieten.

### IKASLEEN %10EK JASATEN DUTE

Alanenek eskola jazarpenaren inguruko kezka agertu zuen. Europa mailan ikerketa garrantzitsuak eginak dituzte eta ondorioztatua dute ikasleen %10ek beren eskola urteetan jazarpena

Euskal Herri osoko ikasletoetako kideek finlandiarrekin egindako lan jardunaldiko momentu bat. Tailerren bidez KiVa programaren baliabide zehatzak ezagutu zituzten. NAFARROAKO IKASTOLEN ELKARTEA

bizitzen dutela zuzenean. Kopuru handi hori ikusita lanari ekin zioten. Willför-Nyman eskola zuzendariak, aldiz, KiVak bere ikastetxean praktikan izan duen garapena azaldu zuen: nola eragin dion eguneroko dinamikari, zer baliabide sortu diren, zer harrera egiten zaien irakasleei, nola esplikatzen zaien proiektua...

Jardunaldiaren bigarren zatian tailer txiki batzuen bidez baliabide zehatzak ezagutu zituzten ikasletoetako ordezkariak: ze unitate didaktiko erabiltzen dituzten umek 7 urte dituztenetik derrigorrezko irakaskuntza bukatzen duten arte. «Unitateak oso zehatzak eta praktikoak dira. Bi ezagutu genituen: bat 7 urteko haurrekin lantzen dutena eta beste bat Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailakoekin, hau da, 14-15 urteko ikasleekin erabiltzen dutena».

Antolaketaren berri ere izan zuten. Jakin zuten ikastetxe guztiek dutela KiVa taldea, edozein arazo dagoela sumatzen den momentutik martxan jartzen dena. Bertan beti egoten dira zuzendaria, arduradun nagusi bezala, irakasleren bat eta batzuetan orientatzaileak.

### PETO HORIDUN ZAINATZAILEAK

Jolas garaietan KiVa zainatzaileak dituzte, peto horiekin identifikatuta. Hala, denek dakite gai hori presente dela eta edozein unetan edozein ikaslek halako egoera bat bizitzen badu badue-la hor erreferentziazko heldu bat arazoaren berri emateko.

Ume txikiekin ez dute eskola jazarpenaren gaia zuzenean lantzen, baina bai zeharka. KiVak umetatik eramaten ditu bertzen larruan sartzera. Halako egoerak planteatzen dira: zer sentitzen duzu lotsatia baldin bazara, bakarrik, gelako arbelera ateratzen bazaituzte, guztien aurrera? Zure burutik zer pasatzen da? Barre egingo dizutela?

Taldeko dinamika egiten dituzte, bikoteka antolatuta. Zer gertatzen da gelan 23 bagaude eta irakasleak binaka antolatze-ko erraten badigu eta bat bikotetik gabe gelditzen bada? Hori joko bat izan daiteke, eta errealitatea ere bai.



**Finlandian, KiVa programari esker eskolen %63an jazarpena ia desagertu egin da, %20an jaitsi egin da eta, batez ere, sufritzen duten pertsonen biktimizazioa txikitu da**

**Jazarpena bizi izan duten lagunek, hazten direnean, erasotzailearen mehatxu eta irainak baino gehiago gogoratzen dituzte ingurukoak isiltasuna eta pasibotasuna**



Johanna Alanen, Ulrika Willför-Nyman eta Josu Reparaz. NAFARROAKO IKASTOLEN ELKARTEA

Derrigorrezko Bigarren Hezikuntzako unitatean bai jorrazten da jazarpena zuzenean. Ez dute lantzen benetako gatazka bat ematen den momentuan eta pertsona zehatzekin. Inoiz ez da kasu erreal bat publiko egiten; bertze bide bat dauka.

Lehenengo eskola jazarpena zer den eta zer ez den bereizten dute. Izan ere, gatazkak hagitz arruntak dira taldeka antolatzen garen edozein tokitan: familian, lagunartean, elkarreetan, eta, nola ez, ikastetxean. Orduan, bereizi behar da zer den jazarpena eta zer gatazka arrunt bat, momentu batean bi lagun artean eduki dezaketena edo bi ume txikik jostailu bera nahi dutelako izan dezaketen borroka.

#### NOLA DETEKTATU?

Nola detektatu jazarpena? Reparazek esplikatu duenez, boterearekin lotuta agertzen da beti. Pertsona bat zapaldua dago eta bertzeak du boterea. Botere hori taldean ematen da. Taldeko bertzeek ematen diote boterea pertsona horri. *Bullying*-a ez da normalean gauza pribatua izaten, biren artean, bertzeek jakin ga-

be. Hortaz, finlandiarren dinamiketan taldeak berebiziko garrantzia dauka.

Beren ikerketetan agertzen den elementuetako bat da jazarpena bizi izan duten lagunek, hazten direnean, oroitzen dutena ez direla horrenbeste erasotzaileak beren kontra erabilitako mehatxuak, irainak, barreak, mespretxuak... Gehiago gogoratzen dute ingurukoek egoera horren aurrean izandako isiltasuna eta pasibotasuna. Eta zenbaitetan, beraien ustez lagunak zirenek ere ez zituztela defendatu. Hori da benetan modu dramatikoan bizitzen dutena.

Eskola jazarpenak ondorioak ditu ez bakarrik gatazkaren momentuan. Ondorioak ditu arlo ugaritan, adibidez autoestimuan eta maila akademikoan.

Ikerketetako bertze datu bat da beti dagoela jazarpena ematen den momentuetan jazarpena jasotzen duenaren defentsan ateratzen den pertsonaren bat. Autoestimua handiena dutenak izaten dira. Prest egoten dira egoera injustuei aurre egiteko. Ikaskideek, portzentaje handi batean, barruko benetako emo-

## GUREAN ESKURA DAUDEN GIDA ETA PROTOKOLOAK

Josu Reparaz Nafarroako Ikastolen Elkarteko zuzendariari ikastetxe bat gidatu zuenean *ziberbullying* kasu bat tokatu zitzaion eta auzian esku hartzea erabaki zuten, «baina puntualki», zehaztu du. «Hori da orain arte egin duguna. Eta ez da gutxi, zenbaitetan ez baita hori ere egin. Badira protokolo batzuk gobernuak markatzen dituenak, baina behin ekintza gertatu ondoren esku hartzeko dira».

Adibidez, nafar Gobernuaren web orrialdean Bizikidetzarako Aholkularitzaren atala dago. Zerbitzu publiko honen helburua da irakasleak, ikasleak eta familiak orientatzea, bertzeak bertze, berdinen arteko jazarpenaren inguruan. Lakuak ere protokolo eta gidak zintzilikatuta ditu bere webgunean. Gidak orientazio izaera du eta bertan jasotzen dira prebentzio neurriak. Protokoloa, aldiz, oinarritzakoa eta aginduzkoa da eta kasu bat gertatzen denean egin beharreko urratsak zehazten dira. Bestalde, Segurtasun Sailarekin hitzarmena sinatua du Exekutiboak. Honen bidez, hitzaldiak eta formazioa ematen dira ikastetxetan, *bullying*-ari eta bereziki *ziberbullying*-ari aurre hartzeko.

Lapurdi, Nafarroa Behere eta Zuberoan, Gobernu frantsesak prebentzio planak eta kanpainak egin izan ditu. Gidak ere kaleratu ditu. Informazio gehiagorako: [nonauharchelement.education.gouv.fr](http://nonauharchelement.education.gouv.fr).



«Oso inportantea da babestua sentitzea, jakitea sufritzen ari zarena ez dela zure errua eta ez dela inola ere onargarria». ANGELSIMON / GETTY IMAGES-ISTOCKPHOTO

zio eta aukeraketan pertsona horiek izendatzen dituzte balio-tsuenak, jatorrenak, estimatuenak bezala, hori egiteko gai direlako, nahiz eta agian ez duten taldean erraten. Aldiz, *bullyng*-a gauzatzen duen ikasleak, boterea hartu arren, eta bertzeak bere jokaeren aurrean maiz isildu edo barre egin arren, ez du ikaskideen balorazio on hori jasotzen. Nafarroako Ikastolen Elkarte-ko zuzendariaren iritziz, elementuok ezagutzea garrantzitsua da arazoari aurre egiteko. «Gutako bakoitzak baloratua izan nahi du, eta ikusten da egoera injustuok mozten edo salatzten dituztenak direla benetan denok izan nahiko genukeena».

Honakoa ere kontuan izan behar dela erantsi du: jazarpena gauzatzen duen pertsona ez da munstro bat. Bere atzean tes-tinguru ezagun bat dago, nahiko ikertua. Bizi duen egoera ez da normalean hoberena izaten. Badago atzean familiaren egoera kaskarraren eragina. Erasotzailearen pertsona bera aunitz lantzen dute KiVarekin, kontuan hartuz ez dela garapen egoki bat lortzen ari, benetan autoestimua on bat izanez eta bertzeak ere ongi baloratu. Bere jokaera desegokia bideratzen eta konpon-

tzen saiatzen dira. Ez dute inola ere erraten «pertsona hau desastre bat da, ez du ezertarako balio». Baditu bere balio onak, baina bere jokaera ez da onargarria eta hori zuzendu behar da.

Reparazek nabarmendu duenez, taldearen interbentzioan dago gakoetako bat: «Taldeari bideratuta egiten diren ekintzek dute benetako boterea hau dena desmuntatu eta desegiteko, baita ikaskideak kontziente izateko ere beren barre horrek, beren txalo horrek hegala ematen dizkiola erasotzaileari eta arazoa konpondu beharrean okertzen ari direla. Baloreekin erabat lotuta dago».

**IKASTETXE OSOA INPLIKATZEN DA**

Programak eskolako estamentu guztiak barne hartzen ditu. Lehenik eta behin, ikasleekin lantzen da zuzenean eta sistematikoki. Bi astetik behin unitateak jorratzen dira aipatutako talde dinamikekin. Hagitz joko atsegin eta erakargarriak dira.

Zentroko irakasle guztiek ere zuzenki parte hartzen dute. Denek jasotzen dute formakuntza egokia. Edozein irakasle iristen bada KiVa duen eskola batera programaren berri eman eta prestatu egiten dira. Finlandian

ikastetxeen %90ek ezarria dute programa eta familientzat erabakigarria izaten da seme-alaben hezkuntza aukeratzeko orduan KiVa izatea ala ez.

Gurasoak bertze hanka oso garrantzitsu bat dira. Kurtso hasieran gidak banatzen dizkiete KiVa zer den ezagut dezaten eta beren partaidetzaren berri izan dezaten. Aholku batzuk ere ematen dizkiete. Beraz, programak denak biltzen ditu.

**KASU BAT EMATEN DENEAN...**

*Bullyng* kasu bat gertatzen denean jazarritako ikaslearekin eta erasotzailearekin lan egiten da. Eta egon baldin bada norbait parte zuzena hartu ez duena baina erasotzaileari babesa eman diona, edo ez diona eman,

**«Taldeari bideratutako ekintzek dute boterea hau dena desmuntatu eta desegiteko, baita ikaskideak kontziente izateko ere beren barre horrek hegala ematen dizkiola erasotzaileari»**

**«Asko eskertu nuen kontaktzea beren ikastetxeetan jazarpen kasuak zeudela. Arazo orokorra da, baina hitz egiten dugunean ez dugu esaten gure zentroan ematen denik»**

berarekin ere lantzen da. Kasua ezagutzen den unetik bertatik hasten da interbentzioa. Gainerako ikasleei aholkuak eta azalpenak ematen zaizkie: zer den eskola jazarpena, jarrera benetan onartezina dela... Eta guztia gurasoekin konpartitzen da.

Nafarroako Ikastolen Elkarte-ko zuzendariaren arabera, ezinbertzekoa da honakoa ere: joera dago norbaitek eskola jazarpena bizitzen duenean berak ze erru zati duen aurkitzeko. «Zergatik niri?», galdetzen du ikasleak. Eta eskoletan ere zera pentsatzen da: «Honi hau egiten diote honengatik eta honengatik. Orduan, saiatu behar dugu erasoak ekiditeko bere izaera aldatzen». Baina finlandiarrek garbi utzi zieten ez dutela inondik inora jazarpena bizitzen duenaren nortasuna aldatu nahi. Ez du bere identitatea zertan aldatu eskola jazarpena ez jasateko. Arazoa konpontzen saiatzen dira, ez identitatea moldatzen.

*Bullyng* kasuetan ezaugarri batzuk ematen dira: «Erasoak jasotzen dituzte hainbat ikaslek beraien ezaugarri fisikoengatik, potoloak direlako adibidez, edo beraien identitatearekin sartzen direlako, homosexualak direlako esaterako. Beti daude identitatearekin lotutako elementuak. Beti daude profil batzuk. Eta ez duzu aldatu behar pertsona baten izaera jazarpena bizi ez dezan. Pauso inportantea da hori».

**EUROPAN BARNA ZABALTZEN**

Ikastoletan oinarritzko hainbat programa jorratzen dituztela azaldu digu Josu Reparazek. Horien bidez ikasleen emozioak eta autoestimua lantzen dituzte. Elkarbizitza planak ere egiten dituzte eta sortzen diren gatazkak modu baketsuan konpontzen saiatzen dira. Baina garbi dute KiVak salto bat ematen duela: jazarpenari izena jartzen dio eta esplizituki lantzen du modu sistematiko eta progresiboan, txikitatik hasita. «Hori da hemen ez dagoena, ez dago programa hain garaturik arazo honi aurre egiteko. Hor dago bere benetako balioa». Horregatik sortu du halako interesa Europan. Programa Britainia Handia,

Estatu frantsesa, Belgika, Italia eta Suediara esportatu da, bertzeak bertze. «Bere buruarekin pozik dagoen pertsona batek, autoestimua ona duenak, bere emozioak ezagutzen dituenak, nekez egingo du jazarpena. Jazarpena egiten dutenek ez dute autoestimua handirik izaten, ezta emozioen kontrolik ere. Orduan, aurretik egin behar den lanketa egiten jarraituko dugu. KiVak ez du ordezkatzeko egiten den emozioen lanketa; saltoa bat gehiago ematen du».

**EMAITZA HAGITZ ONAK**

Finlandiarrek aurkeztu zituzten emaitzak hagitz deigarriak dira: eskolen %63an jazarpena ia-ia desagertu egin da, %20an jaitsi egin da, konpondu ez den kasuetan gutxienez badakite eraso hori egon dela eta jazarpena pairatu duen ikasleak badaki norbaitekin kontatu dezakeela... eta, batez ere, jazarpena bizi duten pertsonen biktimizazioa txikitu egin da.

«Isiltasunean eramaten duzu, ez duzu inorekin konpartitzen uste duzulako askotan merezi duzula hori gertatzea edo zuk zerbait egiten duzulako egiten dizutela hori. Oso inportantea da babestua sentitzea, sufritzen ari zarena ez dela zure errua eta ez dela inolara ere onargarria jakitea, gaizki dagoela eta ez duzula jasan behar».

Haur eta gaztetxoei kostatu egin zaie heldu bati gertatzen ari zaiena kontatzea. Irakasleekin baino aiseago husten dute barrera familiar edo kide nagusiagoren bati kontatuz. Horri ere buelta izugarria eman diote Finlandian, eskoletan *bullying*-a ez dela onargarria erabat barneratzearen ondorioz.

**AURREZ AURRE BEGIRATZEKO AUSARDIA**

«Askok eskertu nuen kontatzea beren ikastetxeetan jazarpen kasuak zeudela. Kuriosoa da: ikerketetan Europan ikasleen %10ek *bullying*-a bizitzen dutela frogatua dago, eta, beraz, garbi dago fenomeno oso orokorra dela, baina, aldiz, hitz egiten dugunean esaten dugu gure zentroan ez dela ematen. Gatazkak izan ditugula esaten dugu. Bai-

na errealtatean jazarpena ere gertatzen da».

Reparazek finlandiarren ausardia txalotu du, arazoari aurrez aurre begiratu diotelako: «Hor dago eta ez da konponduko ezer egin gabe». Hemen ere pauso hori eman behar dugula uste du, jazarpenaren berri izaten dugulako soilik hedabideetan hagitz kasu muturreko eta negargarriak agertzean. «Testigantza oso interesgarria izan zen horregatik, hasteko, arazoa zeukatela esan zutelako. Eta ez zuten beste herriek baino arazo handiagoa, besteen berdina zuten, baina ausardia izan zuten».

Ikasleentzako ordezkariaren ustez, KiVaren alde ona da prebentzioa lantzen dela umetatik, «jazarpena ez baita bat-batean nerabazaroan azaltzen. Txikitatik bizitzen dute haurrek eta, gainera, erasotzaileak eta erasotakoak txikitik askoz gehiago dira nagusiagoak direnean bai-

**Aurrera joz gero, datorren kurtsoan abiatuko litzateke ikasleentzako KiV programa.**

**Gutxienezko zentro kopuru bat behar da, bestela ez baita ekonomikoki bideragarria**

**Edozein kasutan, txip aldaketa ekarri du jada eta Reparazek aburuz etorkizunean ezarriko den zerbait da, «jazarpen egoerak oso injustuak baitira eta ez baitira inolara ere onargarriak»**

no. Programa honetan batez ere alde prebentiboa lantzen dute eta ekintza gertatu ondoren ere hemen baino askoz ere sistematisatuagoa dute esku-hartzea».

«Programak alde oso onak ditu, baina txarra ere bai: oso garestia da», adierazi du Reparazek. Alde batetik, gelako unitate didaktiko guztien garapena dago, eta, bertzetik, finlandiarrek ez dute materiala saltzen, gutxienez hiru urtez aholkulari

bat jartzen dute programaren garapenerako, formaziorako... Pakete osoa garestia da.

Ez diote programa ikastetxe zehatz bati saltzen; zerbitzua Europan barna eskola sare bati zuzentzea planteatzen dute. Ikastolen erantzuna eta gogoia eta jardunaldiaren arrakasta ikusita, Euskal Herrian ere hain injustuak diren egoera hauek gaitzetzeko saltoa emanen dela pentsa daiteke.


Beti dago jazarpena jasotzen duenaren defentsan ateratzen den pertsonaren bat. Autoestimua handiena dutenak izaten dira, baita ikasleek gehien baloratzen dituztenak ere. OMGIMAGES / GETTY IMAGES - ISTOCKPHOTO






## AUTONOMOARENA

KONTATU IEZADAK BERRIZ IPUINA PAUSOZ PAUSO. ETA HOBE DUK HUTSIK EZ EGITEA, LEKUKOAK ZAIDEK.



ESAN DIZUDAN BEZALA IZAN ZEN. NIRE BIKOTEKIDEAK OSO GOIZ SARTU BEHAR IZATEN DU LANERA ETA EGUN HARTAN ERE HALAXE IZAN ZEN...



HAUR BAT GAIXORIK NAHIKOA EZ ETA, HARA NON, BESTEA ERE, GOITIK ETA BEHETIK, EZKER-ESKUMA, HODITERIAK ORO LIBRATZEN HASI ZEN...




NIK BANITUEN DERRIGOR BUKATU BEHARREKO PARE BAT LAN.

AMA?  
ZU BE GAIXORIK?!...  
BALE, BALE...  
ZAINDU...



ZUK TOXIKOMANOEKIN TRATUA IZANGO ZENUENEZ, EZAGUTUKO DUZU IBUPROFENOAREN "GORA-GORA-HEY" EFEKTUA...

KONTUZ KAFEAREKIIIIIN!



...BA, BAJIOIA ERE TAMAINAKOA DA! ZORIONEZ, PEDIATRAK BAZEUKAN TARTEXO BAT ETA OSASUN ZENTRORA ABIATU GINEN BIRIBILKETA ALEGERAN.

EZ, ORAIN EZ NAGO ORDENAGAILUAREN AURREAN, GERO DEITUKO...



JAI! AUTONOMOAK BAI, BIZI!...  
BESTE GUZTIAK LANEAN  
ETA AUTONOMOA  
FAMILIAREKIN PASIADAN!...  
HORI DUK HORI ERRAZ BIZI  
AUTONOMOAK!  
...JAI!



LEHENAGO ERE ESAN DIZUT. IZATEZ, EZ NAIZ BATERE BIOLENTOA...




DEFUNTUAK  
ERE BAZITIAN  
EMAZTEA ETA  
HAURRAK.

ETA HAMABOST  
PAGA URTEAN  
BERE BAJA ESKUBIDE  
ETA GUZTI. ETA  
ERRETIRORA ARTEKO  
LANA DIPUTAZIOAN.

ETA KATANA?!...  
NONDIK ATERA DUK  
KATANA?!...

HATTORI HANZO  
ORIJINAL BAT.  
MAISULANA.





Marisol RAMIREZ - Jaizki FONTANEDA - Jagoba MANTEROLA | ARGAZKI PRESS



## IKUSMIRA

# GARAIAN GARAIKOA; KEXATZEA EZ DA BETI ZILEGI

Otsailaren 20a dugu gaur; negu bete-betean gaude, beraz. Giroa ere halakoxea izan dugu azken egunotan, batzuen “azkenean” eta besteen kexu artean. Eguraldiak hori baitauka, mundu guztia ez asetzeko gaitasuna. Egin dezake bero, epel edo hotz; ibil daiteke haizea, edo bota dezake txingorra. Inor ez du aseko, bete-betean bederen.

Baina eguraldiarekin alferrikakoak dira kexuak, erretxinak. Egiten duena egiten du, eta hala hartu behar. Horregatik, komeni da urtaro bakoitzaren aldeko elementuen zakua puztea, egitekoen aukerak handitzea. Neguak ahalbidetzen du elurretara joatea, edo asteburua sutondoan liburua eskuetan igarotzea. Neguak ahalbidetzen du tabernatik ordu luzez ez ateratzea, edo muturreko tenperaturatan kirola egitea. Plazer hutsak guztiak ere. Beraz, eguraldiaz aritzean dagoena hartu behar eta kito. “Baina”-rik gabe. Kexurik gabe. Erretxindu gabe. Dagoenaz gozatzea hobe izaten baita ez dagoenaren nahian erortzea baino. E. Arruti

# HAZIAK HERRI DENDA

Aldarrikapenak eta euskal presoen lanak pertxetan eta apaletan jasoak

📁 JENDARTEA / amagoia.muji@gaurl8.info

Jantzi daitezkeen aldarrikapenak eta euskal presoek eskuz eta mimoz egindako lanak. Donostiako Amara Zaharrean dagoen Haziak herri dendan material oso berezia saltzen da, pertxetan eta apaletan txukun jasotzen diren istorioak eta bizipenak nagusiki. Zortzi hilabete daramatza martxan, martxa onean, baina bultzada guztien beharra izango du.

**A**mara Zaharreko arroka kalean, ez-kutu samarrean, dago Haziak herri denda. Zortzi bat hilabete daramatza martxan eta pixkanaka ari da bidea egiten. Maitane Sagastumek hartu gaitu, bera arduratzen baita denda berezi horrekin.

«Lagun talde batek zabaldu dugu denda, hutsune bat zegoela iruditzen zitzaigulako eta horrelako denda baten beharra ikusten genuelako. Alde batetik, badago merkataritza eta kontsumoa egiteko modu desberdin bat. Beste aldetik, ikusten dugu espetxeetan sekulako artelanak egiten direla baina gehienetan ez daukatela irtenbide askorik. Gehienak oparitu egiten dira, tarteka erakusketaren bat egiten da... Presoei leiho bat eskaini nahi genien egiten dituzten lanak erakusteko eta saltzeko, zergatik ez?». Izan ere, euskal preso gehienei arraro samarra egiten omen zaie haien eskulanak saltzearen ideia, «iruditzen zaie beren lanek ez dutela saltzeko adina balio. Erreparoa ematen die. Baina sekulako artelanak egiten dituzte, dendan ditugunak ikusi besterik ez dago. Sekulako balioa duten lanak dira, eta salgarriak. Artista handiak ditugu espetxeetan. Zergatik ez saldu haien lanak?», nabarmendu du Sagastumek.

Esaterako, Haziak dendan presentzia izugarri ederra har-

tzen du Zigor Merodio euskal presoak egindako eskulturak; orbainak dituen lurrean hazten ari den hazia irudikatzen du. «Eskultura espresuki egin du Zigorrek dendarako eta hori ez dago salgai, hori dendakoa da», zehaztu du Maitane Sagastumek.

## ERAGILEENTZAT ERAKUSTOKIA

Herri mugimendu eta eragileen-entzate ere erakustoki izan nahi du Haziak dendak. «Eragile horiek guztiek materiala sortzen dute; kamisetak, txapak, poltsak... eta horiek erosteko tokia falta zela ikusten genuen. Manifestazio batean edo jai batean eros daitezke, baina, hortik kanpo, non? Batzuetan ematen du materiala sortu eta biltegi batean gordetzea gustatzen zaigula. Materiala egon badago, polita da, salgarria da eta askotan biltegietan geratzen da gordeta», iritzi dio Sagastumek.

Haziak herri denda dagoen guztia ikusteko denbora behar da. Gehienak kamisetak dira, eragile guztien kamiseta errei-bindikatzailak; Esait, Askapena, animalistak, Bilgune Feminista, kurduen lagunenak, Libre ekimeneko kamisetak... Askotariko mezuak dituzten kamisetak eta jertseak topa daitezke.

Horrez gain, askotariko pitxiak topa daitezke, asko eta asko euskal presoek eskuz eginak; pultserak, katiluak, belarritakoak, eratzunak, galtzerdiak, txa-



Maitane Sagastume arduratzen da Haziak herri dendaren martxaz. Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

pelak, bufandak, eskulanak, armarriak, agendak...

Ataramiñe bildumako liburuak ere topa daitezke, euskal presoen sorkuntza lanak biltzen dituenak, baita Mikel Orbegozoren komiki guztiak ere. Hain juxtu, dendaren irudia bihurtu den marrazkia Orbegozorena berarena da.

#### GEHIENAK, PRESOEN ALDEKOAK

Aldarrikapenak janzten segitzen omen du jendeak: «Presoen etxeratzea eskatzen duten kamisetak dira gehien saltzen direnak. Dagoeneko agortu zaizkigun bi modelo izan ditugu, asko saldu direnak. Pakito Arriaranen beste bat ere izan dugu, internazionalismoaren ingurukoa, oso ondo saldu dena. Adin guztietako jendea gerturatzen da eta bakoitzak bere gustuak ditu. Gazteenek sare antifaxistaren gauzak nahi dituzte, eta, heldu-xeagoak, Etxerat elkarteak gauzak. Badaude desberdintasunak adinaren arabera».

Aldarrikapenak kamisetan edo jertsean duen presentziak eta tamainak ere badauka garrantzia. «Lan egiten duzun tokiak badauka eragina. Badago jendea aldarrikapen kamiseta bat eraman nahi duena, benetan sentitzen duelako eta horren alde dagoelako, baina zerbait diskretua eta txikia nahi du. Eta bada ere pankarta moduko aldarrikapena nahi dutenak; horietako asko kanpotik etorriak izaten dira, kataluniarrak esaterako», kontatu du.

Azken asteetan Askapenako kamisetak eta zapi palestinarrak asko saldu dira. Eta abenduan Joseba Arregi Erostarberen «Burdin Elorri Arantzeta» eta Mikel Orbegozoren «Ilargiraino» liburuak izugarri saldu omen dira.

Zortzi hilabeteko bidea egin du Haziak dendak eta pozik dauke sortzaileak, nahiz eta badakiten bultzada behar duela aurrera egiteko. «Jende asko gerturatzen da. Presoen senideak ere etorritzen dira haien senideen lanak salgai daudela ikustera eta une hunkigarri asko sortzen dira».

Maitane Sagastumek garbi dauka zein den helburua: Euskal Herri mailan erreferente



Haziak herri dendan denetarik topa daiteke, tartean euskal presoek eskuz egindako lan ugari.  
Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

bihurtzea, kamiseta bat nahi duenak edo opari eder bat egin nahi duenak jakin dezan Haziak herri dendan aukera asko topatu dituela. Eta, bestetik, euskal presoei deia luzatzea: «Eskutitzak bidali ditugu, senideekin bildu gara... baina oso zaila da guztiengana iristea. Presoei deia luzatu nahi diet, beren lanak bidaltzea, ateak zabalik ditzutela hemen. Eta ez dezatela



lotsarik eduki. Beren lanek sekulako balioa dute eta bidaltzea onartzea hona saltzera senideen bidez. Gainera, irabazien zati bat senideentzat da. Laguntza txikia izango da, baina laguntza. Senideei deitzen diedanean lan bat saldu dela kontatzeko sekulako ilusioa egiten die».

Haziak herri dendak Facebook orrialdea dauka eta horren bidez eros daiteke. «Gure hurren-

go erronka *on line* denda bat muntatzea da», aurreratu du.

Beste primizia bat ere eman digu Maitane Sagastumek. «Mikel Orbegozok izugarri marrazki politak bidali dizkigu eta udaberriari begira kamisetak atera nahi ditugu diseinu horiekin».

Haziak herri dendako apaletan denetarik topa daiteke, lehen begiratuan ikusten ez diren istorio eta bizipenak nagusiki.



**Gaizka Amondarain**  
Irakaslea

## Ametz doitua

**E**nteratu ez zinetenontzat, aurreko astean aurkeztu zituen Patxi Baztarrikak, EAEko Hizkuntza Politikarako sailburuordeak, Euskararen Gaineko Diskurtso Partekaturako (EGOD) zoru komunaren oinarriak. Euskararen erabilera bultzatu asmoz sortutako txantxangorriaren irudia ezagutzera eman eta egun batzuetara, hain zuzen ere. Euskararen inguruko diskurtsoak aztertu, kontrastatu eta bateratzea izan da lege-gintzaldia bukatzeaz den honetan publiko egin duten egitasmoaren helburu nagusia. Ikerketa horretatik abiatuta lortu nahi da, euskararen normalizaziori begira, datozen hogeitau urteetarako plangintza osatzeko beharrezko adostasuna.

Proposamenean, eragile sozial eta politikoen arteko «kontsentsua» eta «euskararen gaineko diskurtsoa berritu beharra» azpimarratzen dira, batez ere. Ikerketa horretatik ondorioztatu dute, sentsibiltate ezberdineko herritarren artean euskararen gaineko diskurtso partekatu baterako zoru komun bat egon badagoela. Horretarako, gizartean existitzen diren bost diskurtso nagusietako esaldietatik –ez galdetu niri bost diskurtso horiek zeintzuk diren– %66,6tik gorako adostasuna lortu dutenak bakarrik hartu dira aintzat. Gizarteko bi herenek, gutxienez, ontzat emandako 21 baieztapen horien artean denetarik aurki dezakegu, eta, printzipioz, denak euskararen aldeko jarrera baten erakusle dira. Honaino arazorik ez. Baina, beste pelikula haren hasieran zioten moduan: inportantea ez da jautzia, lurreratzea baino.

Oro har, jendeari euskararen edo ekologiaren edo birziklatzearen edo emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren edo bakearen alde dagoen galdetzen badiozu, erantzuna beti baiezkoa izaten delako. Arazoa dator, gauzak zehazten hasten zarenean. Edo are, helburu legitimo horren aldeko neurriak edo legeak praktikan jartzen dituzunean. Hor ja kontuak ez dira hain garbi ateratzen. Birziklatzearen alde dagoenak, akaso, erosotasunagatik edo dena delakoagatik, ez duelako atez ateko zabor bilketarik onartuko –birzi-

klatzeko metodorik eraginkorrena izan arren–. Edo parekidetasuna lau haizetara aldarrikatu bai, baina, bere pribilegioak galdu nahi ez dituenari inork ez diolako gero konturik eskatzen. Edo bakea exijitu eta injustizia batzuen aurrean beste aldera begiratzen duenaren jokabidea moralki guztiz onargarria delako egungo gizaki estandarren begietara. Edo –eta hemen dago gakoa– euskararen alde dagoela esan dizun pertsona berak gero, euskara normalizatzeke A eta B ereduak desagerraraziko dituzula jakinarazten diozunean, euskara inposatu nahi izatea aurpegi-ratuko dizulako sumindurik.

**Ulertzekoa ere bada, bestalde, jendeak horrela jokatzeko, orain arteko logikak hori agintzen baitzuen. Euskararen, Ekologiaren, Berdintasunaren, Bakearen eta Bizikidetzaren alde egon behar dela irakatsi digute, bai, baina bitartean, hitzak edukiz hustu dizkigute.** Esku batekin ilargia seinaltatu eta bestearekin belarrondokoa ematen dizun mago irribarretsua pareko talentuarekin, gainera.

Euskararen normalizazioaren aldeko adostasun eta diskurtso berriak ezinbestekoak dira, erabat ados horretan. Kontua gehiago da, adostasun eta dis-

kurtso berritu horiek norekin, nola eta zertarako definitzen dituzun. Eta euskarari bagagozkio, hemen, gauzak kon-turatu orduko korapilatzen hasten dira. Nik nekez lortuko baitut nire gainean dagoenarekin ados jartzea, berak nire gainean dagoela onartzen ez duen bitartean. Hau da, egungo egoeran eroso dagoenak bere nagusitasunaren ondorio den nire zapalkuntza onartzeko borondaterik ez badu, akabo kontuak. Onartzen ez badu, hasteko, nire hizkuntzari –hau da, niri– falta zaion lekua bere hizkuntzak –hau da, berak– okupatzen duela. Eta ondorioz, nire hizkuntzak –hau da, nik– normaltasunez bizi ahal izateko, bere hizkuntzak –hau da, berak– leku egin beharko diola nire hizkuntzari –hau da, niri–. Azpian dagoenak ere, egunen batean argia ikusi, arnasa hartu eta gorantz hazi ahal izateko gainekoak izan duen eskubide bera izan dezan.

Euskararen normalizazioa justizia kontua baita. Helburuak adostu, eta berauek lortzeko bitarteko eta lege ego-kiak ezartzearekin nahikoa litzateke horretarako. Hemendik hogeitau urtera, gaur ez bezala, euskararik jakin eta erabili gabe eroso bizi dena limurtzeko kanpainetan dirua xahutzen jarraitu behar izan ez dezagun gehiago. •



Baztarrika, Euskararen Gaineko Diskurtso Partekaturako oinarriak aurkezten. Jon URBE | ARGAKZI PRESS

{ koaderno } Iker Barandiaran

# Lehen hitza... oinarritzkoa

Egunotan gau mahaian daukat Jon Sarasua-  
ren “Bost truke” liburua. Arina da liburua,  
interesgarria eta entretenigarria oso, eta be-  
rau irakurtzen disfrutatzen ari naiz. Euskal-  
tasunaren norabideari buruzko apunteez  
osatutako “Hiztunpolisa” irakurri ez badut  
ere, gogoan dut “Ertzeko zatiak”, antzeko abiapuntua  
zuen, eta azken hau gustukoagoa dut. Hego Amerikara  
egindako bidaien pasarteak batzen zituen 2010eko li-  
buruak, eta azken honek ere Garabide dela medio egin-  
dako bidaietako –Andeak, Kurdistan eta Serbia– pasar-  
teak jasotzen ditu; pasarteak eta kasu honetan modu  
oso argian herrialde horietako hizkuntzen –minoriza-  
tuak edo ez– inguruko borroka eta hausnarketak. Oro  
har asko dute lantzeko aipatutako herrialde horietan,  
eta guk, Euskal Herrian, aurrerapauso sendoak egin ba-  
ditugu ere, ezin dugu egunerokotasunean iparra galdu.

Gogoan daukat aspaldi bulegoz betetako eraikin ba-  
tean garbiketa lanak egiten ari zen emakume bat gazte-  
laniaz agurtu nuela. Suziri  
bat piztu banu bezala, ema-  
kumeak errespetuz baina  
minduta kontatu zidan la-  
nean dabilenean jende ia  
guztia gaztelaniaz zuzen-  
tzen zitzaiola, eta bera eus-  
kalduna dela. Atsekabetuta  
zegoen horregatik. Aurreiri-  
tziek engainatu ninduten;  
emakume nagusi samarra  
zen, eta garai hartan garbi-  
tzaileetako asko –orain be-  
zala– etorkinak ziren. Hala-  
ko jarrerak zaintzea erabaki  
nuen, gugandik hasi behar  
delako.

Uste nuen hori gaingiduta neukala, baina orain gutxi  
antzeko bi gertaera bizi izan ditut: batean, inoiz izanda-  
ko taberna batera sartu eta zerbitzariak –hegoamerika-  
rra bera– gaztelaniaz artatu ninduen. Nik, besterik ga-  
be, gaztelaniaz eskatu nion. Baina halako batean  
zerbaitek klik egin zidan eta ordaintzerakoan euskaraz  
zuzendu nintzaion. Bada, euskaraz bazekien. Bestean,  
ilobarekin barrakatan fitxak eroatera joaterakoan ezer  
galdetu eta eskatu aurretik konturatu eta zinez harritu  
nintzen bertako langilea euskalduna zelako. Hori bai  
dela lorpena, udalekin tratua egin izanagatik bozgorai-  
luetatik Irrien Lagunak, Ken Zazpi, Errobi eta Hesian  
taldeen musika gau eta egun jarri arren, orain arte jo-  
lasleku berezi horiek El Fari, Cascanteko ijito eta bulga-  
riarren erreinua izan direlako, eta, ondorioz, halakoa

izan delako hizkuntzaren isla. Hizkuntzaren ikuspegi-  
tik salbaezinak ziruditen esparru gehiago irabazten ari-  
tuko gara?

Zerbait aldatzen ari den seinale, baita euskaldunon  
baitan ere, gure jarreran alajaina. Dozena bat urte dela,  
Gasteizko taberna batean euskaraz jatekoa eskatzerako-  
an «*háblame en cristiano*» erantzun homofobo, karka eta  
elizkoi-erretrogadoa entzunda, «*perdona*» erantzun  
nuen, baina esango nuke ordutik ez dudala inoiz eran-  
tzun bera eman eta ziur nago ez zaidala berriro inola ere  
aterako. Horren orde, «*ah, también hablo en castellano*»  
erantzun izan ohi dut, gutako askok berak ez dakien hiz-  
kuntza horretaz gain, beste batzuk ere badizkigulako. Eta  
hizkuntzak gehitzen ditugun heinean, berak ez bezala,  
kultura aberastasuna eta pentsaera irekiera ere adieraz-  
ten dugulako.

Eta agian optimista samarra banaiz ere, neure pertzep-  
zioa da, baita ere, euskara ez dakitenek ere zertxobait al-  
datu dutela jarrera. Adibidez, ezagutzen ditut goeko ha-

Oraindik normaltzat hartu behar al da  
Euskal Herri zati bat ordezkatzeko duen  
agintaritzaren ofizialenaren segurtasuna  
bermatzeko duen langile batek euskaraz  
zipitzik ez jakitea?

markadan ertzainei euskaraz hitz egin izanagatik –eta  
gaztelaniara aldatu ez izanagatik– atxilotuak izan dire-  
nak; ez bat eta ez lau, askoz gehiago. Eta ez daukat datu-  
rik ertzain izateko hizkuntza-eskakizunik baden eta bete-  
tzen den, baina orain gutxi lan kontu bategatik  
Lehendakariaren agente batengana jo nuen, eta txapa  
guztia euskaraz bota niola ohartu zenean –ez ninduen  
moztu–, inolako modu txarrik erakutsi gabe (horretan  
aldatu ei dira!) onartu zidan euskararik ez zekiela. Hor-  
taz, txapa bera gaztelaniaz azaldu nion berriro. Hala ere,  
oraindik normaltzat hartu behar dira halako gertaerak?  
Hau da, Euskal Herri zati bat ordezkatzeko duen agintari-  
tza ofizialenaren segurtasuna bermatzeko duen langile  
batek euskaraz zipitzik ez jakitea? Normaltzat hartuko  
genuke gauza bera beste edozein herrialdean? Ziur nago  
ezet, eta ez luketela inondik inora onartuko. •

INDEPENDENTZIAZ HAUSNARTZEN

# «Abertzaletasunak ez digu balio jada subjektu independentista artikulatzeko»

**I**ndependentziaz hausnartzen” lelopean Andoni Olariagak abiatutako seriearen bigarren zatia da lerrootan aurkituko duzuna. Unai Apaolazaren (Donostia, 1973) eskutik emango diogu jarraipena independentziaren inguruko hausnarketari. Olariagak euskal askapen mugimenduari egiten bazion erreferentzia, independentismoaren artikulazioaren inguruko gogoetara eramaten gaitu Apaolazak, subjektu politikoari eginez azpimarra.

“Abertzaletasunetik independentismora” tituluarekin bataiatu du Apaolazak “Independentzia helburu” liburuko bere pasartea. Bertan, euskal nazionalismoaren historiaren errepa-so labur bat egiten du, abertzaletasunaren ezaugarri eta mugak xehatzen ditu eta independentziara bidean bestelako estrategia baten beharra azpimarratu eta ideia posible batzuk garatzen ditu. Ea bada zertan den abertzaletasunetik independentismorako urratsa.

**Saiakera euskal nazionalismoaren errepa-so labur batekin hasten duzu. Sabino Arana litzateke lehen mugarria. Zernolako nazionalismoa garatu zuen? Zer ezaugarri zituen?** Euskal nazionalismoa –hots, abertzaletasuna– Sabino Aranarekin hasi zela esan genezake. Abertzaletasunaren errepa-so historikoa egitearen helburua da ikustea abertzaletasuna bera estrategia bat dela eta momentuko testuinguru sozialaren arabera antolatzen eta moldatzen dela, eraginkortasunean sakontzeko betiere. Eraginkortasuna, kasu honetan, subjektu independentistarena izango litzateke. Sabino Aranaren agerpena karlismoaren nolabaiteko amaieraren ondorio izan zen. Hala, European jada nagusitua

UNAI  
APAOLAZA  
FILOSOFOA ETA IRAKASLEA  
Filosofian lizentziatua, Filosofia irakaslea  
da egun batxilergoan Unai Apaolaza  
(Donostia, 1973). Lapiko Kritikoa  
kolektiboko kide ere bada.

Aimar Etxeberria Korta



zegoen estrategia edo ideologia bati heldu zion: nazionalismoari. Nazionalismoaren bidez foruak babestuko zituen estatu bat erdiestea zen bere helburua. Horretarako arrazan oinarritutako subjektua eraiki zuen; “hemengoak” eta “kanpokoak” di-kotomia sortu zuen, abizenetan oinarrituta.

Askotan esan ohi da Sabino Arana arrazista zela, baina kontua da garai hartako testuinguru-ruan guztiek erabiltzen zuten aldagai bat zela arrazarena, bai-ta Spainian edota European bertan ere. II. Mundu Gerraren os-tean, baina, eta nazismoak egin zuen arrazaren erabileraren on-dorioz, lausotzen hasi zen “arra-za” kontzeptuaren erabilera, ez baitzen eraginkorra subjektu politikoa egituratzeko. Eta ez ze-nez erabilgarria, albo batera utzi zen eta kito. Horrek erakusten du, berriro ere, naziotasuna edo abertzaletasuna –hots, nazioa marraztea– estrategia kontua dela. Ez dago berezko naziorik, guztiak dira eraikiak, estrategia politikoak direlako. Hori hala, abertzaletasuna estrategia beza-la hartzen badugu, uneren bate-an aldatzerik badagoela esaten ari gara; modu absolutuan har-tzen badugu, berriz, ez daukazu aldatzeko aukerarik. Kasu horre-tan duen eraginkortasun politi-ko guztia galtzen du.

**Sabino Aranaren ostean Federico Krutwigek ezarri zuen mugarri berri bat, bere «Vasconia» lanarekin. Zein aldaketa proposatu zituen? Zer irauli zuen?** Krutwigek “Vasconia” idatzi zuenerako ETak bere ibilbidea hasia zuen. ETaren hasierako erreferentziak, baina, abertzale-tasun klasikotik zetozenak zi-ren, Sabino Arana berarenak adibidez. Zentzu horretan, Krutwigek egin zuena izan zen abertzaletasuna bestelako erre-ferentzia batzuekin lotu, komu-nismoarekin adibidez. Kontuan hartu behar da garai haietan komunismoa abertzaletasuna-rentzat olia urarentzat bezala zela. Aldaketa horren atzean es-trategia bat zegoen. 50eko eta 60ko hamarkadetan jende asko

etorri zen Estatu espainiarretik Euskal Herrira lanera. EAJk era-biltzen zituen betaurrekoekin jende hori etsaia zen; ezin ziren abertzaletasunera gehitu, ez baitziren euskal arrazakoak. Be-raz, abertzaletasunak, marxis-mora gerturatzearekin, sekula-ko potentziala irabazi zuen. Subjektu independentista za-baltzea lortu zuen, eta diskurtso potente bat bereganatu zuen. Hala, zentralitate totala hartu zuen independentismoak 60ko hamarkadaren amaieran eta 70ekoan zehar, bai eta ezkerreko ikuspegiak ere. Horren ondorioz da gaur egungo independentis-moa ezkertiarra, eta hori ez da ohikoena; bada, hemen, bai. Zer gertatuko litzateke Krutwigek eta ETak ez balute aipatu bilaka-era garatu? Segur aski hemen ez litzateke independentismorik egongo, hori nahiko argi ikusten dut. Edo egongo litzateke baina oso modu erresiduallean.

**Gaur egun, zer abertzaletasun mota daukagu? Zer ezaugarri ditu eta zeren ondorio da?** Uste dut Txabi Etxebarrietaren “euskal langile herria” –*pueblo trabajador vasco*– izan dela gaur arte egin den formulazio-rik eraginkorrena. Baina irudi-tzen zait orduz geroztik inde-pendentismoa ez dela gehiegi berritu; independentismoak ez du subjektua artikulatzeko mo-du berririk sortu. Eta, ondorioz, usteltzen joan dela ere esango nuke, subjektu independentista definitzeko oso modu bizi-atiuak sortuz, eraginkortasunari baino egiari gehiago begiratu izan diotenak. Formulazio oso itxiak egin dira, eta uste dut arrazoia dela independentismoaren bi-lakaerarik eza. Eta zerekin topa-tzen gara momentuotan? Bo-rroka armatua desaktibatu da, baldintza berriak sortu dira, subjektuak artikulatzeko modu klasikoak ere bertan behera erortzen hasi dira... Eta hemen independentismoa artikulatzeko tresnak abertzaletasuna iza-ten jarraitzen du oraindik. Eta ez digu jada balio; ez digu balio estatu bat lortzeko gaitasuna izango zukeen subjektu inde-pendentista artikulatzeko.

**Teorizazio berri baten falta antzematen duzu, orduan.**

Esan bezala, Txabi Etxebarriaren ondoan ez da bilakaerarik egon. Tartean sortu zen beste bide bat denbora labur batez iraun zuena, Gernikako Estatutuaren garaian. Independentziarako beste bide bat sortu zen, Estatutuaren eta honek barnebiltzen zituen eskumenen transferentzien bidez erdietsitako independentzia. Bide laburra egin zuen baina, Estatutua onartu eta segituan ikusi zelako Estatu espainiarrak ez zuela sinatutakoa beteko. Egoera horretan iritsi gara gaur egunera. Eskema orokorra falta zaigun denboratan gaude. Horrez gain, mantentzen ditugu subjektu independentista eratzeko tresnak, abertzaletasunarenak direnak eta agortuak daudenak. Beraz, bi krisiren erdian gaudela esango nuke: eskema orokorrarena eta subjektua eraikitzeke tresnena.

Abertzaletasunak jada ez digu balio. Ohartu behar gara behingoz hiru nazio sentimendu barnebiltzen dituen herri batean bizi garela, eta ezin dela eraiki subjektu independentista soilik nazio sentimendu bakarra duen komunitatearen gainean. Abertzaletasuna naziora eta honen ezaugarriak –hizkuntza, kultura...– babestera mugatzen da. Gaur egun, beraz, independentista izateko nazio jakin bateko sentitu behar zara. Aurrebaldintzak jartzen dira independentista izateko, eta hori da apurtu beharrekoa.

**Zer litzateke estrategia esentzialista bat? Zertan oinarritzen da eta zer harreman du abertzaletasunarekin?**

Esentzialismoaz ari naizenean soilik subjektu politikoei errepertzen diet. Esentzialismoa da subjektu politiko bat borondatek kanpo marraztea. Hori hala, subjektu politiko baten definizioa egiterakoan diot subjektu politikoa dela etorkizunera begira nahi komun bat duten pertsonen multzoa, eta gainera multzo horretako partaide izatearen kontzientzia behar dute. Beraz, eskatzen badiogu norbaiti subjektu politiko bateko kide



Argazkiak: Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

izateko nazio sentimendu jakin bat izan behar duela aurrebaldintzak ezartzen ari zara. Kasu horretan diot subjektua esentzialista dela.

Esentzialismo hori, baina, baliagarria izan daiteke erresistentzia fase baterako, subjektu txikien kasurako, hizkuntza eta kultura bezalako faktore potentekin eusten delako. Estatu bat lortzeko saiakera abiatzen duzunean, ordea, eta hori jendarte heterogeneo batean egiten duzunean, esentzialismoak mugak ezartzen ditu. Horregatik ez digu gaur egun balio; beste modu bateko formulazioak behar dira, aurrebaldintzarik jartzen ez dutenak. Estrategia bat garatzeko oinarri-oinarrizkoa da subjektua ahalik eta zabalena eta aktiboena izatea. Horri autolimitazioak jarritz gero, hau da, euskal naziokoak sentitzen direnak soilik onartuz gero, zabaltzeko mugak jartzen dizkiozu. Gehienez jota nazio sentimendu hori du-



*«Bi krisiren erdian dago independentismoa: eskema orokorra falta du eta subjektua artikulatzeko tresnak abertzaletasuna izaten jarraitzen du oraindik»*

ten horietara soilik irits zintezke. Beraz, arazo bat daukagu: nola egin ahalik eta zabalena eta aktiboena izango den subjektu independentista osatzeko?

**Horregatik diozu independentismoak «biraketa kopernikarra» behar duela. Zein norabidean eman beharko luke aipatu biraketa?**

Gaur arte independentzia euskal nazioa salbatzeko modu bakar bezala justifikatu izan dugu, eta euskal nazio horren baitan identifikatzen dira, batez ere, hizkuntza eta kultura. Horrek izugarrizko topeak ditu. Independentismoa modu horretara justifikatzen baduzu, hizkuntza eta kultura horiekin identifikatzen direnak soilik erakarri ahal izango dituzu independentismora. Hori hala, eta biraketa kopernikarrari dagokionez, abertzaletasuna estrategia bat dela onartzean soilik gauzatu ahal izango da.

Independentzia ez da nazioa salbatzeko izango, alderantziz baizik: nazioa da independentzia egituratzeko modu bat. Biraketa kopernikar horrekin erlatibizatu egiten da abertzaletasuna –egun modu absolutuan ulertzen duguna–, eta horrek ahalbidetzen du beste tresna batzuk topatzea.


Momentuotan independentismoak betaurreko aldaketa izugarri bat behar du. Gaurgaurkoz independentismoa oso eskema zaharrekin pentsatzen da: abertzaletasunarekin eta azken 40 urteotan izan dugun eskema orokorrarekin, hots, alde biktasunarekin. Mundua eta jendarte ulertzeko eskema horietatik ezin aterata gabiltza, nahiz eta onartu krisian gaudela eta zenbait aldaketa eman behar direla. Alderdi independentistak, baina, ez dira aurreiritzi horiek guztiak albo batera utzita estrategia independentista bat pentsatzeko gai.

**Betaurreko aldaketa horren baitan hegemoniaren ideia plazaratu duzu. Zer da, baina, hegemonia?**

Hegemonia da jendarte konkretu batek daukan neurria, edozein arlotan. Hegemonia da “normala” den hori. Subjektuari erreparatzen badiogu, hegemonikoa izango da independentzia jendarte guztiaren onerako dela ikusten badute ez soilik independentista diren horiek, baita ez direnek ere. Horrek ekartzen du epe motz edo ertainean jendea independentismora gehitzea. Hegemoniak, gainera, subjektua *a posteriori* definitzen du. Independentista independentziaren alde dagoena izango da, besterik gabe. Horrek tope guztiak gainditzeko aukera ematen du. Honetaz hitz egitean, beti egiten didate galdera bera: «Eta orduan, non geratzen dira gure hizkuntza eta kultura?». Borroka hegemonikoa sartzen da hemen. Zergatik daukagu egun independentismo bat ezkerrekoa dena? Independentismo barruan modu naturalean garatzen delako. Horrek esan nahi du normaltasun hori hizkuntza eta kultura ere sustatu beharko genukeela, baina normaltasuna ez dugu eskuratuko gaur arte egin izan den moduan, normaltasuna lortzeko baino lubakiak eraikitzeke erabili izan baititugu hauek. Gakoa pisua non jarri erabakitzean dago, aldarrikapenean edo erabileran. Beraz, esentzialismoaren aurka egiten du bete-betean hegemoniak: gero eta subjektu esentzialistagoa orduan eta subjektu txikiagoa, eta alderantziz. Hori bai, subjektu txikiak kontraesan gutxiago ditu bere baitan, baina helburuak lortzeko ez du balio.

**Nola lortu baina aipatzen duzun hegemonia hori?**

Kontzeptu berri pila bat ari gara erabiltzen azken denboran, eta elkarren artean ezkondu beharrean gaude. “Aldebakartasuna” eta “hegemonia”, adibidez. Hegemonia lortzeko egin behar dena da, lehen esan bezala, norberaren helburu partikularra unibertsal bilakatu. Baina nola egin? Bada aldebakartasunaren bidez.



Aldebakartasuna borroka tresna bat da, konfrontazioa sortzeko erabil daitekeena. Hori da hemen ulertu ez dena oraino: aldebakartasuna ez da arerioaren diskurtso politikora gerturatzea, indar posizio bat hartzeko tresna bat baizik. Eta indar posizioa lortzeko konfrontazioa sortu behar da. Orain arte, eta orokorrean hitz eginda, borroka armatua erabili da hemen konfrontazioa sortzeko. Baina utzi zion borroka armatuak eraginkorra izateari, estatuek jada neurria hartua ziotelako. Horregatik, urgentea da konfrontazio esparru berriak sortzea. Behin hori eginda, norberak erabakitzen du konfrontazioa non garatzen duen, noiz garatzen duen eta nola garatzen duen. Modu horretan, arerioa norberak erabakitako eremuan aritzera behartzen da, eta hor irabazteko guztiak dituzu. Beraz, “aldebakartasuna” eta “hegemonia” bezalako kontzeptuak erabiltzen hasi beharko litzateke independentismoa.

**Konfrontazio gune berrien beharra aldarrikatu duzu. Zure**

*«Independentismoak helburu partikular izatetik hegemoniko izatera igaro behar du. Horretarako tresna izan daiteke aldebakartasuna»*

*«Betaurrekoak aldatzeaz gain, konfrontazio gune berriak sortu behar ditu independentismoak. Arlo soziala izan daiteke gune horietako bat»*

**ustez, non garatu beharko luke konfrontazioa independentismoak?**

Aurrez aipatu bezala, gaur arte independentismoak garatu duen konfrontazio nagusia armatua izan da, nahiz eta hizkuntza edo kultura bezalako eremu partikularretan ere garatu izan duen. Hori hala, aurreantzean sortu behar diren konfrontazio eremuak, batez ere, arlo sozialean kokatu behar dira. Arlo sozialean garatzen den konfrontazio horretan, baina, beti azpimarratu beharko da petatxua jartzen ari zarela, eta arazoa benetan konpondu ahal izateko estatu baten beharra dagoela. Ez bada hori egiten, eta petatxuarekin soilik geratzen bagara, *status quo*-a justifikatzen arituko ginateke, estatuen baitan arazoa konpontzerik legokeela esaten arituko ginateke. Adibidez, Iruñean geratzea lortu zuten etxegabetzearen kasuan azpimarratu beharko litzateke etxegabetze guztiak geratzeko modu bakarra estatu propioa izatea dela. Aipatu guztia gartzeko, baina, arazo bat daukagu:

independentista den horrek ere ez du sinesten independentzia posible denik, gaur eta hemen. Horren adierazle nagusia da alderdi edo mugimendu independentistek ere ez dutela estrategiarik definitu.

**Zein dira, bada, estrategia independentista bat abian jartzeko jarraitu beharreko urratsak?**

Lehenengo urratsa litzateke jada balio ez diguten betaurreko horiek kentzea. Ondoren, konfrontazio gune berriak sortu beharko genituzke, eta horietan konfrontatzen hasi nahi dugunean eta nahi dugun moduan. Baina independentismoak gaurgaurkoz egin behar duen galdera nagusia da ea independentismoa alderdi politikoen edo gizarte mugimenduen eskutik egituratu behar den. Zentzu horretan, esango nuke independentismoa alderdien esku uzteak kasik alde bikotasunean erortzea esan nahiko lukeela. Aldebikotasuna, gainera, alderdi abertzaleen artekoa izango litzateke, ezker abertzalea EAJk zer egin begira jarriko litzatekeelako. Zentzu horretan, dagoenaren indar metaketa bultzatu baino subjektu berri bat sortzean egin beharko luke indarra independentismoak. Beraz, independentismoaren eraketa eremu horretatik ateratzearen aldekoa naiz. Era berean, erabakitzeke eskubideaz gaindiko agenda propio bat garatu beharko luke independentismoak, ostantzean erabakitzeke eskubideari bere potentzialitatea kentzen arituko ginateke eta.

**Independentzia, bai, zertarako baina?**

Batez ere hobeto bizitzeko. Eta hobeto bizi alor guztietan gainera: euskaraz biziz, soldata hobekak izanez... Estatu txiki bat izanda, gainera, hemen Euskal Herrian politika kontrolatzeko dugun ohiturarekin, denok hobeto biziko ginatekeen estatu bat gauzagarriagoa dela esango nuke, Estatu frantses edo espainiarrarekin alderatuta baino. Hori saltzea oso erraza da; gaurtik hasi beharra daukagu.

INFO



IRRATIA

# ENTZUTEKOA DA KONTATZEKO GAUDE

10  
URTE

DONOSTIA 99,2  
TOLOSALDEA 97,7  
GOIERRI 106,7  
BERGARA 100,2

ARRASATE 106,1  
UROLA 107,7  
KOSTA 107,1  
BILBO 102,3

DURANGALDEA 100,7  
OTXANDIO 90,4  
IRUÑERRIA 106,7  
GASTEIZ-LAUTADA 103,8

INFO




IRRATIA





## NEKAZARITZA ETA ELIKADURA EKOLOGIKOA



Argazkia: GAUR8

# XXI. mendeko nekazaritza... ekologikoa izan beharko?

**M**unduko Elikadura eta Nekazaritzarako Erakundeak (FAO) emandako datuen arabera, gizateriaren historiako elikagai ekoizpen handiena dugu gaur egun: 4.000 milioi tona urtean. Janari horretatik guztitik herena, 1.300 tona, alperrik galtzen da. Errekorrak hausten jarraituz, inoizko gosetu kopuru handiena dugu XXI. mende hasiera honetan; 800 milioi pertsonak elikatze arazo larriak dauzkate. Galdutako janari horrekin guztiarekin 2.000 milioi pertsona elikatze adina legoke, betiere FAO beraren arabera.

Bitartean, herrialde aberatsotan, janaria barra-barra alperrik galtzearekin batera, obesitatea eta berarekin lotutako osasun arazoak zabaltzen doaz. Estatu espainolean, esaterako, ia lau herritarretik bat (%23) obesoa dira (2015). Gurean zertxobait hobe gaude, soilik zortzi euskaldunetik batek (%13) baitu osasuntsutzat onartzen dena baino pisu gehiago. Munduko leku batzuetan dagoen gabezia eta beste batzuetan dagoen gehiegikeriari erreparatuta, begi bistakoa da elikatze-sistema hau ez dela batere iraunkorra gizarteari dagokionez.

Behin jasangarritasunaz hitz egiten hasita, noski, ingurumena dator berehala burura. Bada, zentzu horretan ere, gizaki modernoaren elikadurak apenas baduen zerbaite jasangarritik. Monolaborantza ikur, substantzia kimikoetan intentsiboa den eta erregai fosilen dependentzia handia duen ekoizpen eredu batean oinarrituta dago. Dagoeneko inork uka ezin dezakeen aldaketa klimatikoaren eragile nagusietako bat da, ekoizpenean eta, batez ere, “elikagaien” eraldaketa zein garraioan isurtzen diren gasak tarteko (isuri guztien %30 direla kalkulatu du Ekologistak Martxan-Friends of the Earth erakunde ekologistak). Bioaniztasunaren galeran, nekazaritza da eragile garrantzitsuenak: lur berriak ekoizpenean jartzeko deforestazioak, monolaborantza eta intentsifikazioaren eraginez gaiztotutako izurriteen eta gaixotasunen aurka erabiltzen diren pozoiak, edota antzutu-tako lurretan ekoizpena mantentzeko botatzten diren –eta zatirik handienez naturara isurtzen diren– ongarri kimikoak inoizko espezie galera handiena eragiten ari dira.

Baldintza hauetan, norantz jo beharko luke gure elikadura sistemak epe ertain-luzean iraunkorra izate aldera? Otsail honetan ezagutu dugu nekazari-

tza ekologikoa XXI. mendeko elikaduran klabe izango dela ondorioztatzen duen beste ikerketa bat. Ekoizpen mailaren, ekonomiaren, ingurumenaren eta ongizatearen irizpideak aintzat hartuta, eredu konbentzionala eta ekologikoa konparatu ditu AEBetako Washingtongo Unibertsitateko Reganold eta Wachter ikerlarien “Organic Agriculture in the 21st Century” ikerketak. Aldez aurretik egindako ehun lan inguru aztertu eta konparatu dituzte horretarako, aipatu irizpideetan oinarrituta. Ondorioak argiak dira: ekoizpen ekologikoak askoz emaitza hobeak azaleratzen ditu bai ingurumenari eta baita gizakion ongizateari dagokionez ere. Ekonomiaren alorrean, autoreek diote elikagai ekologikoen ekoizleek diru sarrera gehiago jasotzen dituztela beraien ekoizpenengatik, produktuon kontsumitzaileek jakin badakitelako baserritar ekologikoen lanak, janariaz gain, bestelako zerbitzu batzuk ere ematen dizkiela; hala nola, ingurumenaren zaintza, bioaniztasunaren sustapena, abere ongizatea, nekazaritza-lurretan materia organikoaren finkatzea edota higaduraren galaraztea.

Ekoizpen mailari dagokionez, eta hemen dago eredu ekologikoaren gakoe-tako bat, orokorrean hartuta nekazari-

tza ekologikoak ematen duen elikagai kopurua txikiagoa da, lur unitateko. Aipatu ikerketak azpimarratzen du produktibotasun galera, egonda ere, ez dela horren handia eta tartea asko txikitze aukerak badaudela agroekologiako tekniken alorrean ikerketak garatuz. Berkeley Unibertsitateko ikerlari batzuek 2014an argitaratutako lanaren arabera, produktibotasun galera %19 ingurukoa da, oro har. Kasu batzuetan aldea hori baino handiagoa da, eta, beste batzuetan (lekariak aipatzen ditu ikerketak), produktibotasuna parekoa izan daiteke. Zentzu berean doaz aste honetan bertan Kataluniako IRTA ikerketa institutuak argitaratutako artikularen emaitzak: eskegitzeko tomatearen ekoizpena (*pà amb tomaquet* egiteko erabiltzen dena) berdina izan daiteke ongarri organikoak eta nekazaritza ekologikoko teknikak soilik erabiltuta. Nekazaritza konbentzionalaren defendatzaileek beti azpimarratzen dute ekoizpen ekologikoak ezin dezakeela “mundua elikatu” (ekoizpen konbentzionalak hori lortuko balu bezala...) produktibotasun nahikorik ez duelako ematen. Zenbat eta ikerketa gehiago egin, orduan eta ageriago geratzen da hori ez dela erabat zuzena, besteak beste, eredu ekologikoak bi aldiz elikagai gehiago ekoizten dituelako energia unitateko. Alegia, efizienteagoa dela baliabideen erabileran (IFOAM eta FiBL, 2014). Badago beste kontu bat, tankera honetako ikerlan guztietan aipatzen dena: ekoizpen ekologikoa askoz hobeto egokitzen da klimaren aldaketak dakartzan baldintza aldakorretara (agortea kasu), biologikoki landutako lurrek materia organikoa mantentzen dutelako. Horrek mantentzeak eta ura gordetzeko gaitasuna ematen die.

Horiek horrela, “mundua elikatu behar haren” aitzakiatan nekazaritzaren intentsifikazioa, ekoizpenen deslokalizazioa (gaur egun, 4.000 kilometro garraiatzen dituzte gure elikagaiak, batez beste!), pozo kimikoak, ongarri mineralak edota hazi transgenikoak defendatzen dituztenak argudio gabe gelditzen ari dira. Lastima da tankera honetako informazioak ez duela jasotzen behar besteko oihartzuna. Herritarrok elikadura sistema baten eta bestearen arteko aldeak ezagutuko bagenu, ez genuen zalantzarik izango: ekologikoa eta bertokoa, noski.

# Aprobetxatu eta gozatu

Joxean Agirre

**E**z da egongo munduan “aprobetxatu” aditza ahozko hizkuntzan gurean adina erabiltzen den lekurik. Norbaitek pentsa dezake aditz hori politikoen edo bankarien ustelkeria kasuak definitzeko erabiliko dela, beren karguaz baliatuz aberastu direlako. Baina ez, aditzak zerbait abstraktuagoa adierazten du, ia-ia filosofia bat, bizitzeko modu bat, “aprobetxatu” zaleak dena aprobetxatzen baitu, abagune bat, joan-etorri bat, txango bat, oporrak edo festa bat; azken finean bizitza bera.

Aditz horren erabiltzaile sutsuenak pertsona helduak dira, emakumeak bereziki. Jende ona eta alaia da eta bizitzari buruzko ikuspegi baikorra dute, baikorregia behar bada. Batzuetan alaitasuna bera adierazten ote duten nago. Telebistako kate erdarazkoaren batek kalean, demagun inauteriak direlako edo, mikrofonoa aurrean jarri eta zerbait galdetzen badie, «*hay que aprovechar*» esango dute erreak ondo ahoskatuz, bizitza aprobetxatu zaleak direlako. Gauean sena-

rrak, ohera sartu aurretik, ederra dagoela esaten badio, atzeak edo aurreak oparoak dituela eta gisako zerbait, besoak zabaldu eta «aprobetxatu!» esango diola pentsatu ohi dut.

Gure gurasoak jansenistagoak ziren eta denbora aprobetxatu behar genuela esaten ziguten. Helburua probetxuzko pertsonak izatea zen. Orain ez, orain aprobetxamendua aisialdiarekin lotuta dago eta ia-ia “gozatu” aditzaren parekidea da. Horregatik, ohartuko zineten “aprobetxatu” zale horien seme-alabek “gozatu” aditza neurritz kanpo erabiltzen dutela. Bukatzen dute triatloi bat, jartzen zaie mikrofonoa ahoan eta «nire asmoa gozatzea zen...», esanez hasten dira beren esperientzia kontatzen eta pentsatzen duzu lehen kilometroetan gozatuko zutela eta ez ondoren. Gogoratzen naiz Segurako Dantza Txapelketa jokatu zuten hamar bikoteetatik bederatzik ere gauza bera aitortu zutela. Arauzko arin-arina bukatu orduko eta arnas pixka bat hartzeko betarik gabe jarri zien ETBko aurkezleak mikrofonoa

ahoa (debekatuta egon behar luke ariketa gogorren ondoren mikrofonoa ahoan sartzea) eta guztiek gauza bera esan zuten, gozatzera joan zirela Segurara; prestatzaileek edo entrenatzaileek edo *coach*-ek nonbait hori errepikatzen diete, berdin dio dantza edo maratonia egiten duten, gozatu egin behar dutela.

Neure inguruan ere baditut horrelakoak. Lanen bat egitera noala esaten badiet «bueno eta gozatu» esaten didate, ia-ia agindu. Bertsolarien artean ere zabaldu da «gozatzera joan nintzen» esateko ohitura hori, komunikabideren baten aurrean daudenean noski, bestela ez.

Lehengo bertsolariak eta apustulariak lehiatzera joaten ziren. Joxe Mari Olasagastik ere ez du apustu batera gozatzera doala esaten, irabazten ari dela gozatuko badu ere, irabazten ari denean bakarrik, hedonista merkeenak ere bai baitaki eta Epikurok ere esaten baitzuen (Freudek zer esanik ez) gozatu ahal izateko sufritu egin behar dela. •

# Ihesaldia eta bortxa

Saioa Iraola

**I**raken, Afganistanen edo Sirian hasitako ihesaldiak Balkanetako ibilbidean Libano, Turkia, Hungaria, Kroazia, Grezia, Alemania, Frantzia... zeharkatzeko eta askatasun helmugara iristeko bidaiaz, ihesaz ari naiz. Errefuxiatuen uholdea irudikatzen duten irudi eta hitzek larrituta, galdurik eta atsekabeturik naukate. Ihesaldi gogorra, gai korapilatsua, eta bonba eta misilen amaierarik eza. Europan, xenofobiaren adierazpen gero eta gehiago hantzen. Gainera, Europako hainbat herrialdek txarrantxa hesiz itxi dituzte mugak eta setiatutako eremuetan giltzaturik dauzkate milaka herritar nora ezean eta aterabiderik gabe, han egotera beharturik. Are eta zorrotzago Pariseko atentatuen ostetik. Horrek pasabidea zail-

tzen die iheskideei, ibilbidea luzatzen, eta bidezidor ilun eta malkartsuetan milaka kilometro egitera behartzen.

Errefuxiatua eta emakumea izatea ez da errefuxiatua eta gizonezkoa izatearen berdina. Emakumeen eta haurren zaurgarritasun egoera azaleratzen duten gobernuz kanpoko erakundeetako oharrak irakurri ditut, bai eta komunikabide hainbatetan agertutako albisteak ere. Baina aukera izan nuen aurreko asteburuan Berit Dahlström-ekin honetaz hitz egiteko, Suediako Vänsterpartiet-en Europako taldeko idazkari politikoa bera. Orain hila-bete batzuk, NBETik Balkanetako ibilbidea egin dute, eta ikaragarria izan dela dio emakume errefuxiatuen bizipenak entzutea: bortxatuak, lan prekarioetara be-

hartuak, kolpatuak, salduak izan ohi dira, bai ihesaldiaren lehenengo momentutik bai Europako herrialdeetan ere. Erasotzaileak? Errefuxiatu gizonak, herrialde anitzetako poliziak, gobernuz kanpoko erakundeetako kideak nahiz militarrek. «Calais-en emakumeak eta haurrak arratoi artean bizi dira; eta hori Europan, Frantzian», nabarmendu zidan Beritek.

XXI. mendean, krisi sistemikoaz dihardugun honetan, beharbada gizateria krisi baten aurrean ere bagaudela zehaztu behar genuke. Beste aldera begiratzeak jada ez digu balio. Xenofobia indarra hartzen ari den honetan, bultza dezagun igarotze seguruaren eta asilo politikoaren aldeko belaontzia arduraz, internazionalismo, antiarrazismo eta feminismo. •



Phil Miller Elortzan bizi da, Arabako Mendialdean kokatuta dagoen kontzeju txikian. Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

**N**ola demontre heltzen da eskoziar bat Izkira? Zer egiten du Elortza bezalako kontzeju txiki batean? Phil Millerrek ez du erantzunik. Duela hamazazpi urte iritsi zen Euskal Herrira, «kasualitatez», nora ezean. Kostaldea bisitatu zuen, Bilbon eta Donostian egon zen, eta Gasteizen bizi izan zen. Hiri anitza eta irekia irudituz zitzaion Arabako hiriburua, toki ezin hobea bizitzeko. Baina dena aldatu zen Arabako Mendialdea ezagutu zuenean. Leku ederra irudituz zitzaion, paisaiak maitemindu zen eta hara bizitzera joatea erabaki zuen duela hamahiru urte.

Gaur egun etxe bat dauka Elortzan, Maeztu eta Iturrieta batzen dituen errepidearen ondoan. Zuriz margotutako etxeek osatzen dituzte herri txiki honekaleak, basoz inguratuta daudenak. Paradisu naturala

# infraganti PHIL MILLER

Duela hamahiru urte iritsi zen Phil Miller Arabako Mendialdera, Izkiko paisaiak maitemindu ostean. Egun Elortzako bere etxeko ateak bidaiariei aterpe emateko irekitzen ditu eskoziarrak. Bertan gaua pasatzen dutenei txangoak egiteko aukera ere eskaintzen die, oinez edo, Momo eta Django astoei esker, gurdian.

hormigoiez jositako nazio batean. Zekuianoko baltsa, Igoroin erreka idoiak, Korresko amildegia, Olandinako urmael txikia... gozatzeko milaka leku dauka Arabako hego-ekialdean, Nafarroarekin muga-mugan, dagoen parke natural honetan.

Bada, atzerritar ugarik ezagutu dituzte Izki eta Euskal Herri-

ko sekretuak Millerri esker. Duela urteak *couchsurfing* komunitatearen bidez iristen ziren bisitariak eskoziar honen etxera, ondoren, Airbnb webguneari esker. Halaber, 2009an Bizipoza Tours webgunea martxan jarri zuen eskoziarrak. Bertan txangoak eta informazioa eskaintzen dizkie mundu osoko bi-

daiei, betiere ingelesa baldin badakite, webgunea William Shakespeare handiaren hizkuntzan idatzita baitago. Hala ere, Millerrek argi uzten du webgunea ez dela turismo agentzia bat, ezta negozio bat ere. «Diru gutxi eskatzen dut nire etxean lo egiteagatik, eta, bisitariak nahi izanez gero, hainbat ekin-

tza egiteko aukera eskaintzen diet, baina trukean diru kopuru zehatzik eskatu gabe, borondatea soilik. Batzuek asko uzten dute, eta, beste batzuek, ezer ez», azaldu du. Bere burua «kultur ezberdinen arteko zubi» gisa ikusten du, eta, dioenez, kanpoko izatea baliagarria zaio sarri bertakoentzat oharkabean igarotzen diren gauzetan erreparatzeko. «Gauza xumeek garrantzia dute, eta hemengoek askotan ez diete duten balioa ematen, esaterako, leka patatei edo ardo botila bati!», azpimarratu du barrezka.

Festa eta herri giroa ere ezagutzen dituzte bisitariak Millerri esker, eta euskaraz dakizkien hitzak ere irakasten dizkie. Millerren etxean lo egiten duten turista gehienek ama hizkuntza ingelesa da, baina frantses Estatutik, Kataluniatik eta Ekialde Urrunetik etorritako bisitariak ere jaso ditu. Eta azaltzen duenez, gehienek nahia ez da zazpi

euskal herrialdeetako hiriburuak bisitatzea. «Herriak ezagutu nahi dituzte, eta jendearekin hitz egin. Hori da nik eskaintzen diedana», adierazi du. Taiwanetik etorritako bidaiari baten historia ekarri du gogora: «Herriko auzokideekin hitz egiten zuen, euren esperientziak partekatzen zituzten, ezagutzak trukatzeko zituzten».

#### MOMO ETA DJANGO

Millerrek txango ezberdinak eskaintzen dizkie bere etxera heltzen diren bidaiariei. Arabako Errioxa eta Euskal Herriko kostaldea ezagutu ahal izango dituzte, noski, baina Entzia eta Kantabria mendilerroek mugarrizten dituzten lurak hobeto ezagutzeko aukera ere izango dute. Txangoak oinez zein gurdiz egin ahalko dituzte, Momo eta Django astoen eskutik. Hain zuzen ere, Vasco-Navarro trenaren bidetik gidatuko dute gurdia astoek.

Momori Michael Ende idazlearen eleberri ezagunaren protagonistaren omenez jarri zion izena Millerrek, eta auzokide batek oparitu zion 2014ko ekainean. Djongo, berriz, iaz heldu zen Elortzara, Maeztuko herritar batek oparituta. Izan ere, astoek ezin dute bakarrik bizi, bikotekidea behar dute. «Arrantza egiten du astoak bakarrik egonez gero, eta tristeziaz hiltzen da», azaldu du Millerrek. Behin astoak lortuta, ez zen zaila izan gurdia aurkitzea, are gutxiago base-riz beteta dagoen eskualdean.

Bizitopa Tours webgunean azaltzen den bezala, adimen handia duten animaliak dira astoak, izaki “magikoak”. «Beste erritmo bat dute, eta gurdian bidaiatzeko duten esperientzia berezia bizitzen dute. Inguruko xehetasunak nabaritzen dituzte. Izan ere, astoak izaki bizidunak dira eta haiekiko harremana berezia da, ezin daiteke autoz egindako bidaia batekin konparatu», dio Millerrek.

Iaz Momorekin bidaia luzea egin zuen Millerrek: Elortzatik Bermeora joan zen, 105 kilometroko bidaia Araba eta Bizkaian barna, “Ardoa eta Arrainaren GR-38 ibilbidetik”. Bederatzi egun iraun zituen bidaiak, Ara-



Phil Miller eskoziarrak bi asto ditu, Momo eta Django. Momorekin Elortzatik Bermeoraino joan zen iaz. Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

bako Lautada, Zuiako kuadrilla eta Durangaldea zeharkatuz kostaldera iristeko. «Polita izan zen, motel-motel zoaz, bidaiatzeko gozatuz. Herrietara heltzerakoan, jendea niregana hurbiltzen zen astoa ikusteko. Nirekin hitz egin nahi zuten, eta askok garga-bat hartzera gonbidatzen ninduten. Otxandioko jatetxe baten afaltzera gonbidatu ninduten», gogoratu du herritarren abegi ona eskertuz. Millerrek dioenez, jendeak asto gutxi daukela uste du, «baina hori ez da

egia, asto bat edukiz gero asto piloa daudela konturatzen zara. Izan ere, astoak dituzten zoro guztiak ezagutzen dituzu!».

Etorkizunera begira, plan ugari ditu Millerrek, eta astoak izango dira planon protagonistak. Udan astoekin Maeztuko igerilekuen atean jartzeko asmoa du, gurdian paseoak eskaintzeko. Baina “Asto Txango” ekimena martxan jarri baino lehen bere egoera legeztatu nahi du, gaur egun borondatea eskatzen baitu bere laguntzaren truke. «Nire egoera aldatu nahi dut, gaur egun ez baitut ezer kobratzen. Langile autonomoa izan nahi dut, gidari turistikoa izateko», gaineratu du. Dioenez, ez zaio inporta autonomoen tasa altua ordaintzea etorkizunari begira segurtasuna lortzeko.

Horrela eskaintza zabalagoa prestatu ahal luke. Ekimen berriak jarri ahal lituzke martxan. Oraingoz lau txango proposatzen dizkie Bizipoza Tour webgunean sartzen diren bi-

daiei, “Asto Txangoa” barne. Lehenak Bizkaiko kostaldea ezagutzeko du helburu. Portugaleteko zubi esekitik hasten da txangoa, eta Bermeo eta Gernikatik igarotzen da. Halaber, bidaiariak Ea eta Gaztelugatxeko Doniene ermita ere bisitatzen dituzten txango honi esker.

Millerren eskutik, Arabako Errioxa ezagutzeko aukera ere badute bidaiariak. Gasteizko Alde Zaharrean gosalduta ondoren, bidaiariak herrialdeko hegoaldera abiatzen dira Bernedo mendatetik. Arabako Errioxara heltzerakoan, Guardia eta bertatik gertu dagoen Sorginen Txabola dolmena bisitatu eta upel-tegi batean bazkaltzeko aukera dute bidaiariak. Gasteizera itzultzerakoan Herrera mendatetik pasatzen dira. Eta handik Ebro ibaiaren ur ertzean dauden hiri eta herriak ikus ditzakete, lainoak aukera ematen badu betiere.

Azkenik, Euskal Herriko mendebaldeko ezagutzeko aukera eskaintzen die eskoziar honek bere etxean lo egiten dutenei. Gasteizetik edo Bilbotik hasteko aukera dago. Hiriburu batetik edo bestetik atera ondoren, bidaiariak Goiuriko ur-jauzira joaten dira, eta Urkabustaizetik Kuartangora ere hurbiltzen dira. Mendiko botak jantzita, Nerbioi ibaiaren ur-jauzira hurbiltzen dira, eta handik Aiaraldeko lurrak ikusteko aukera dute. Hori xe, ziurrenik, Euskal Herriko postalik ederrenetako bat da. Eta Añanan bazkaldu ostean, Gasteizko Alde Zaharrera itzultzen dira txangoa amaitzeko. Bidaiariak proposatzen dituen txangoak gustuko dituztela uste du Millerrek, izan ere, askok errepikatzen dute esperientzia.

Amaitzeko, aipatu Millerrek Sorgin Soro nekazaritza ekimenarekin ere kolaboratzen duela. Berak boluntarioak bilatzen ditu Okarizeko landetan lan egiteko. Esperientzia polita da parte hartzen dutenentzat, lurra landu ondoren Arabako Lautadako milaka txoko bisitatu ahal dituztelako. Eta nola ez, Izkira hurbil daitezke Millerren etxean indarrak hartzeko... •

Ion Salgado

**Miller Elortzatik Bermeora joan zen pasa den urtean Momo astoarekin. 105 kilometroko bidaia egin zuten Araba eta Bizkaitik barna. Bederatzi egun iraun zituen bidaiak**

**Millerrek ez du dirurik eskatzen antolatzen dituen txangoengatik, borondatea bakarrik. Etorkizunera begira, bere egoera legeztatu nahi du ekimen gehiago martxan jarri ahal izateko**



**Ander Izagirre - @anderiza**  
Kazetaria

## Historiako maparik zaharrena

**H**aize korrante bat nahi-koa zaio Xabier Cabezoni Leitzarango basoetan orientatzeko. Berrogei urte daramatza, urratsez urrats, bailara honetako maparik zehatzena osatzen.

Hala ere, basoan gora, zalantza egin du bidea erabakitzeko. Honaino ekarri gaituen xenda desagertu egin da pinu artean, eta Xabierrek gora egin du intuitzio hutsez. Baina erreferentziak falta zaizkio. Halako batean, gelditu egin da, belarriak tente, azala adi.

–Ez al duzu aire korrante hotz bat sentitzen?– galdetu dit.

Bai, gure ezkerretik brisa leun eta fresko bat dator.

–Begira, harkaitz tarte horretan galaria bat dago. Hortik dator haizea.

Sasiek estalitako gain txiki bat adierazi dit, eta hango harkaitzen arteko aho txiki bat. Burdina ateratzeko galeria meharra zen, aspaldi abandonatutakoa, eta Xabierrek orain badaki non gauden: gaur egun galeria horren berri dakien pertsona bakarrenetakoa izango da, bakarra ez bada, eta buruan grabatuta daraman Leitzarango mapa zehatzean koka dezake zalantzarik gabe. Badaki, beraz, non gauden.

Paperezko mapa atera du motxilatik, 1:100.000 eskalakoa. Berak egindakoa da. Berrogei urte eman ditu ingeniari donostiar honek, bere denbora librean, mapa hori lantzen eta osatzen, koloretako puntutxoak josten: horrela adierazten ditu meazuloak, mea zainak, burdinolen eta labeen hondarrak, trenbidetxo ahaztuen arrastoak eta behinolako toponimoak. Basoan galdutakoak gehienak, bere mapan berreskuratutakoak.

Erreportaje baterako ibilbide bat deskribatu behar nuen eta horregatik etorri naiz Xabierrekin. Ibilbide ezezagun hori osatzen lagundu dit. Osatzen eta arrasto xumeekin markatzen: berak badaki pertsona arruntek ez daukatela, berak bezala, basoaren erdian haize korrante batekin orientatzeko gaitasunik. Horregatik, xenda desagertzen den puntura itzuli gara eta Xabierrek harri pilo bat osatu du lurrean, balizko ibiltariei bidea adierazteko.

Basoan gora goaz, pinu, garo eta sas-traken artean. Ibilbide honi buruzko erreportajea, trenbide txiki baten arrastoak ezagutarazi nahi ditut. Duela ehun urte baino gehiago meatze batetik burdina jaisten zuen tren horrek, baina lokomotorarik gabe: mandoek tiratuta ibiltzen zen. Meatzeak aspaldi itxi zizutzen, trenbidea bertan utzita gelditu zen, basoak irentsi zuen. Baina Xabierrek agiri zahar batean bere berri izan zuen eta basoa miatzen ibili zen, arrastoak aurkitu arte: errail puskak, meazuloak, plano etzanak, labeen arrastoak.

**Aurkitu ditugu azkenean. Trenbide desagertuaren bide leundua jarraitu dugu basoan, gero mendian gora joan gara Altzadiko gaina harrapatu arte.** Hemendik aurrera errazago goaz, zelai eta aldapa zabaletan behera, Gipuzkoako itzuliko pintura zurigorriak jarraituz (GR-121). Toponimoen jakituria zaharrak ere lagundu digu: Xabierren mapan Putretako Harria izeneko leku bat ageri da, gure bidean, eta halako batean haitz altu batzuen inguruan putreak hegan ikusi ditugu. Munduan ondo kokatuta

sentitu gara. Eta historiako lehenengo mapa erabiltzen ari garela iruditut zait. Munduari izenak jarri zizkioten arbasoen bidean goazela.

Duela urte pare bat, Urkizutik Erniozabalera igo ginen lagunartean. Ez genuen bidea ezagutzen eta erreferentzia bakarra geneukan: Lizarbakar izeneko lepora iritsi behar ginela. Hemen doan argazkian ikus dezakezue, ez genuen inolako zalantzarik izan.

Gailurrean pentsatu nuen norbaiti eskerrak eman behar genizkiola, orientatu eta bidea erakusteagatik, baina ez nekiela nori. Mundua izendatzen hasi zen arbaso cro-magnonarekin gogoratu nintzen, lehenengo argibidearekin orientatu zen lehen artzainarekin («zoaz putreak egoten diren haitzaren paretik», adibidez) eta pentsatu nuen toponimoak solidaritate genetiko baten oihartzuna direla.

Leitzaranean, Xabierrekin, mundua zaindu eta izendatzen duten pertsona horietako baten orpotik ibiltzearen zirrara sentitu nuen. •

[www.anderiza.com](http://www.anderiza.com)



Urkizutik Erniora bidean, Lizarbakar izeneko lepoa.

Ander IZAGIRRE

# BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



SÉEGER FRÈRES, MÉDIATHÈQUE DE L'ARCHITECTURE ET DU PATRIMOINE. MINISTÈRE DE LA CULTURE-FRANCE.

## SEEBERGER ANAIK, ARGAZKILARI LEINU BAT

Seeberger anaiak –Jules (1872-1932), Louis (1874-1947) eta Henri (1876-1956)– Lyonen bizi zen bavariar jatorriko familia bateko kideak ziren. 1890. urtean, baina, Parisera joan ziren bizitzera. Argazkilari leinuko lehen belaunaldiak 1900 eta 1925 bitartean egin zituen lanik garrantzitsuenak. Hasieran postal editoreentzat hasi ziren lanean eta hiriak, herriak eta monumentuak jasotzen zituzten argazkietan. Bestelako bokazioa zuten lanak ere egin zituzten; 1910ean Parisen izandako uholdeak edota gerra itsasontzi bateko itsasgizonen bizimodua jaso zuten, esaterako, argazkietan. 1923tik 1931ra bitartean Parisko dekoratuak eraiki zituzten Hollywoodeko zenbait zinema estudiorentzat. Lan hori egiteko kaleak, eraikinak, dendak, biltegiak, hotelak, garraiobideak eta beste jaso zituzten argazkietan, tartean Biarritzen, Angelun edo Baionan. Irudian Biarritzeko kasinoa ikus daiteke.



## URTEKARIA 2015

### Burujabetzarako bidea

Urteko gertakizun garrantzitsuenak, liburuki atsegin batean: irudiak, dokumentuak, grafikoak, kronologiak, estatistikak, kronikak... 216 orri

Eta aurten, gainera, **sinadura entzutetsuen analisiak** gori-gori dauden gaien inguruan:

Jabier Salutregi, Urko Aiertza, Iñaki Altuna, David Fernández (CUP),  
Jordi Cuixart (Òmnium Cultural), Jordi Sànchez (ANC), Raúl Zelik...

Eta **Gaindegia**-ren kolaborazio berezia:

Euskal Herriaren erradiografia  
adierazle sozioekonomikoen bitartez,  
grafikoekin eta beraien testuinguruekin osatua

**27an eta 28an**  
**larunbata eta igandea**

Harpidedunentzako  
eskaintza berezia  
**7,95€**

Erreserbatu zure alea astearteko (otsailak 23) 15:00ak baino lehen  
94.424.55.56 telefonon (9:00-15:00)  
edo igorri dizugun e-mailari erantzunez.  
Etxera bidaliko dizugu bidalketa gasturik gabe.

Soilik  
**11,95€**



**Ezinbestekoa**  
**zure apalategian**

